



**Irudia eta goiburua aukeratuta, Mintzodromoa prestatzen dabilta Gorlizen eta Plentzian.** ▶10



**Berdintasunaren taupadak dokumentala plazaratu du Plataforma Tirantek; eurakaz egon gara.** ▶15

# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**58. zenbakia**

2016ko  
maiatzaren 5etik  
maiatzaren 11ra arte

## Uribe Kosta, interes geologikoko gunea

**Bizkaiko Geologia 2016** ibilaldia eskualdean egingo dute, hilaren 8an; ibilbidea Galeatik Sopelaraingoa izango da. ▶22-23



## «Kili-kilika, ume euskaldunak alfabetatuz»

**Akaitze Kamiruaga urduliztarrak** Labayruko lankideakaz batera egin ditu *Kili-Kili* aldizkariaren mende erdia ospatzeko erakusketa, dokumentala eta liburua.

*Kili-Kili*. Euskara *pozgarri* erakusketa ekainaren 26ra arte egongo da Euskal Museoa. Aldizkariaren gaineko dokumentala eta liburua ere egin dituzte Bilboko Udalak eta La-

bayru Fundazioak; ume euskaldunak alfabetatzeko asmoz sortu zuten aldizkaria, 1966an. Lander Gallastegi berangoztarra izan zen *Kili-Kili* agerkariaren marrazkilaria. ▶16-17

HERRIZ HERRI URDULIZ

## Ospitalerako garraiobideak, kezka-iturri

**Urdulizko ospitalea** ekainean zabalduko du Osakidetzak; handik aurrera apurka-apurka gero eta zerbitzu gehiago eskainiko ditu.

Harainoko garraiobideak berbabide dira egunotan. Vicente Reyes Garraio diputatu sozialistak azaldu du metroa ez dela 2017ko martxora arte helduko. Hainbat eskaera egin diote EAJko hainbat alkatek eta zinegotzik, eta horien aurretik bestelako aldarrikapenak egin zizkieten EH Bilduko alkateek ere. ▶9

**Emakumeen jabekuntza ikus-entzunezkoen** bidez lantzeko doako tailerra egingo dute Algortako Jabekuntza Eskolan. ▶4

**Hilaren 23tik 27ra** bitartean, Bizkaiko hiru antzerki-taldek obra bana taularatuko dute Berango Antzokian. ▶6

**Leioak Saxtea saxofoi-astea** hartuko du, martitzenetik zapatara, haize-instrumentu horretaz gozatzeko. ▶11

**Erandioko Goiherri sokatira-taldeak** lur gaineko Euskadiko txapelketen denboraldiari ekin dio. ▶18





## Zuberoako inauteria eta gure komeria

**B**etikotasuna adierazten du ten nekazal paisaiak, ipuinetatik aterata diruditen herrixka txikiak, ulergaitz egiten zaigun euskalkia, bere dantzen ikusgarritasuna eta zuberotarrek abesteko duten dohain erdigenetikoa. Horiez guztiez goza genezake Zuberoako maskaradan. Neguko inauteri hori urtero egiten den arren, ez da lan makala berori antolatzea, batez ere, Zuberoako populazioa kontuan hartuta. Urterik urte herri desberdin batek hartzen du, 3 hilabetez, igandero eta herriz herri, maskarada plazaratzeko ardua, lurraldeko gazteen presentzia nabarmena izanik. Bizkaian, ehunka gazte gara euskal dantza tradizionaleko talde desberdinetan gabiltzanak. Uribe Kostan, zortzi bat dantza talde izango dira. Portugalete bezalako herri txiki batean, hiruzpalau. Ditu-gun baliabideekin, ahal genukeena baino emanaldi kaskarragoak egiten ditugu ordea. Zergatik? Zuberotarra baino ulergaitzagoa egiten zaidan izaera dugulako: «sektario» batzuk garelako. Talde sanoaren itxura eman nahian edo nolabaiteko talde-urguilu batek bultzatuta, gutxitan eskatzen diogu aldameneko taldeari laguntza, oso ohikoa den dantzari gabezia baten aurrean gaudenean. Ekitaldi asko, «konplizearren» egiten ditugu eta ez gara konturatzten ikusle bezala aldameneko taldeko dantzariak izango ditugula begira, gure dantzari gabezia soberan jabetu eta gure arazo berdina pairatzen dutelarik. Nor engainatu nahi dugu? Maskaradak antolatzeko jendea, denbora eta auzolana behar dira. Aurten-goak amaitu dira baina ea ba datozen maskaradetan, euren dantza urratsak bideotan ekartzeaz gain, azken osagai hori ere ekartzen dugun dantzari bizkaitarrek: Elkarlana. «Sekta» izateari utzi eta dantzatalde bilaka gaitezen. Gutxi gara honetan ari garenak, lagun diezaiogun elkarri. ◀

## Getxo

# Akordioaren ondorioak

### Aurtengo aurrekontuen

**eta** tasa zein zergen %0,65eko igoeraren onarpenek eztabaidak sortu dituzte Udalean.

**A**urtengo aurrekontuen onarpenaren harira, EAJ eta PSE-EEK osatutako gobernutaldearen eta EH Bilduren arteko akordioa kritikatu zuten azkenengo udalbatzan PP eta GUK taldeek, eta koalizio abertzaleari «gutun zuria» ematea leporatu zioten alkateari, «bere aldetik aurrekontuko aldaketak egiten jarraitu ahal izateko, osoko bilkura ekarri beharrean». Hala, oposizioko talde bi horiek alkatearen eskuordetutako eskumenak murrizteko zuzenketak aurkeztu zituzten. EH Bilduk, berriz, erantzukizunez jardun duela adierazi zuen, oposizioko taldea den aldetik. «Akordioari esker, Udalak aurrekontu berriak izango ditu, eta guri esker, osoko bilkuran aurrekontuak eztabaidatzen ari gara, orain dela 4 urte areto honetan sartu gabe zeudenak. Aurrekontuok ez dira EH Bilduk egingo litzuzkeenak, baina uste dugu akordioa herritarren mesederako dela, ezkerreko planteamenduak jasotzen dituelako». Negoziazio-prozesuaren ondorioz lortutako hobekuntzak aipatu zituen koalizio abertzaleak; berbarako, gazte-emantzipaziorako 250.000 euroko partida lau urterako, edo Getxoko Emakumeen Etxea eraikitzeke herrita-



info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

ren parte-hartzearen prozesuari ekitia; «gure proposamenak herritarren, elkarteen eta merkatarien ekarpenen emaitza da». Gobernu-taldeak, berriz, hiru alderdi ezberdinak (EAJ, PSE-EE eta EH Bildu) hurbildu izana eta negoziatorako jarrera izatea txalotu zituen.

### Tasa eta zergen % 0.65eko igoera

Udal tasa eta zerga batzuk %0,65 igozteza onartu zuen Udalak. EH Bilduk iragarri zuen herritarrentzako hainbat «onura» lortuko direla igoeragaz; halere, tasa eta zerga politika horrek hainbat aldaketa «behar» dituela nabarmendu gura izan zuen. PP eta GUK taldeek gogor kritikatu zuten igoera hori. PPK 26 zuzenketa aurkeztu zituen

(ezetsi egin ziren) familia ugariak, merkatariak eta ekintzaileei mesede egiteko, zaborren tarifa Bizkaiko batezbestekoari egokitzeko, eta Musika Eskolako tasa ez handitzeko, besteak beste. GUK taldeak, berriz, tasa eta zergen proposamena kritikatu zuen: «EAJ, PSE-EE eta EH Bilduren akordio horren emaitza denez gero, legegintzaldi osorako zerga-karga areagotuko da. Ez gaude ados Musika Eskolaren tasa igotzearekin eta egoitzako kuotak gorantz berdintzearekin, diruzaintzan gerakina dagoenean». Ignacio Uriarte Ogasun zinegotziak erantzun zuen tasen eta zergen eguneratzearen helburua dela «murrizketarik gabe bermatzea udal zerbitzu guztien iraunkortasuna». ◀

## Negurin galtzada zabaldu, eta berdegunea egokituko dute

**M**artxan dira 11.1 Neguri Egikaritze-Unitatearen urbanizazio-proiektuan zehaztutako lanak. Obra horien funtsezko helburua da Neguri etorbidearen eta San Inazio kalearen antolamendua: galtzada eta espaloiak zabalduko dituzte, 86 zuhaitz ale landatuko dituzte, eta egoteko berdegunea egokituko dute. Neguri etorbidean, berriz, galtzada zabaltzeko lanak egingo dira, eta aparkaleku bat ipiniko da gaur egun aparkatzeko lekurik ez dagoen alderdian; 23 leku sortuko dira. Halaber, espaloien zabalera handituko dute, Irisgarritasunaren Erregelamenduan ezarritako neurriak betetze aldera. San Inazio kalean ere galtzadaren zabale- ra handituko da; ondorioz, «bertako 22 bananondoak kentzea beharrezkoa



izan da zabaldu beharreko gunearen barruan daudelako», udalaren arabera. Ondoren, 43 gereziendo landatuko dira bertan. Horrez gainera, egoteko berdegune bat egokituko da kale bien elkargunean; bertan, beste 43 zuhaitz ale eta zuhaixkak landatu, eta hamabi banku ipiniko dituzte. ◀

## Udalak 65.000 euro bideratuko ditu hezkuntza-alorrera

**H**ezkuntza-alorrean 65.000 euroko diru-laguntza banatuko du 2016an Getxoko Udalak. Hala, deialdia zabaldu du ondoko lerro hauetan sartzen diren jardueretarako eta programetarako: Interes publiko eta sozialeko jarduerak, Getxoko gurasoei zuzenduta; ingurumen-erlora hezkuntza-proiektuak eta -jarduerak, udalerriko ikastetxeetako ikasleentzat; eskolaz kanpoko jarduerak, ikastetxeetako gaitasun handiko ikasleentzat; gela egonkorretan eta Getxoko ikastetxe publikoetako ikasle gorrentzako programetan garatutako jarduerak; eskolaz kanpoko jarduerak, eta jarduera osagarriak. Laguntzok maiatzaren 14ra arte (2. lerroa) eta maiatzaren 30era arte (gainerako lerroak) eska daitezke. ◀



Getxo

# «Normalean egiten ez diren erritmoak ditugu»

**Leun taldeak rocka** jorratzen duen arren, beste estiloetako ezaugarriak hartu eta bere estilo propioa lantzen du, erritmoak, melodiak eta armoniak gurutzatuz.



Antton Goikoetxea, Markel Badallo eta Jone Ibarretxek osatzen dute Leun taldea.

IKER RINCON MORENO ▶

**L**eun hirukotea Gaztea Maketa Lehiaketaren finalaren atarian gelditu da; bozketan, hirugarren postuan, hain zuzen. Maketa bat grabatua dute daborduko, Jone Ibarretxe kantariaren aitak idatzitako *La parabola del hombre bala* liburuan oinarrituta dago maketa.

**Zer musika-mota jorratzen duzue?**

Guk beti esaten dugu gauza bera: rock-talde bat garela. Hala ere, egia da beste ezaugarri batzuk sartzen saiatzen garela. Beste musika estiloetatik hartzen ditugu gauzak, erritmoetan, melodietan eta armonietan sartzeko.

**Maketa bat grabatu duzue, ezta?**

Bai, oso grabazio luzea izan zen, tar-

teka eginda, eta joan den abenduan amaitu genuen. Gustura gelditu gara emaitzarekin; halere, nabaritzen da horiek hasierako abestiak direla. Orain zeozer gehiago aurreratu dugu; apur bat aldatu gara.

**Zertan datza lan hori?**

Maketa horren abesti guztiak Joneren aitak idatzitako liburu batean daude: oinarrituta *La parabola del hombre bala*. Istorio laburrak dira, eta bakoi-tzarekin abesti bat egin dugu.

**Gaztea-ko Maketa Lehiaketan lehiatu zarete, zelakoa izan da?**

Oso zaila da aurrera egitea. Bozketa orduan, bozka gehien jasotako lehenengo biek finalerako txartela lortu dute, eta gu hirugarren gelditu ginen. Gero, epaimahaia beste hiru talde aukeratu ditu, baina, zoritxarrez, ez gara gu izan.

**Hala ere, lehiaketak balio izan du nork bere burua ezagutarazteko, ezta?**

Bai, hori, oso ondo. Gehienbat horretarako da, eta jende gehiagorengana heldu gara, horri esker. Nabaritu dugu propaganda egin dutela eta *Gaztea*-koek noizbait gure izena aipatu eta abestia jarri dutela. ◀

## Txorimalo gaztetxea zenaren etorkizuna erabakitzeke 2. bilera

**T**xorimalo gaztetxea zenaren etorkizuna erabakitzeke lehenengo bilera egin zuten Algortako gazteek apirilaren 16an. Batzar hartan, hainbat ideia eta ikuspegi jaso ziren; hala ere, oraindino ere bidea egin beharra dagoela argi geratu zen eztabaida hartan. Hori dela-eta, gazteen artean ideiak trukatzeko bigarren bilera bat egitea adostu zuten; berori, hilaren 8an, domekan izango da. Hala, egun horretan aurrekoan parte hartu zuten lagun guztiak hurbiltzea, eta orain arte hurbildu ez direnek parte hartzea espero dute deitzaileek. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, Algortako Aldai Patronatuan. ◀

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

## Europako bost musika-eskolatakoek joko dute Algortan

**A**ste-akabuan, hilaren 6an eta 7an, Algortako San Nikolas plaza Musika Eskolen Europako Jaialdiaren egoitza bihurtuko da. Hala, Europako bost musika-eskolatako gazteek joko dute bertan, Andres Isasi musika-eskolako ikasleak batera. Barikuan, hilak 6, 18:00etatik aurrera joko dute taldeek. Zapatuan, hilaren 7an, berriz, 19:00etatik aurrera igoko dira musika-riak agertokira. Jaialdia eguaztenean, hilaren 4an, hasi zen Donostian, eta hilaren 7ra arte iraungo du, 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren, Donostia2016 delakoaren, baitan. ◀

**KOMUNIKATUZ ERALDATU**  
Herriak euren komunikazioaren jabe

**JARDUNALDIAK /// JORNADAS**

Herri indigenak - Herri-komunikabideak - Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako  
Pueblos Indígenas - Medios populares - Comunicación para la transformación social

**SOPELA - GETXO**

Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin  
Con la participación de comunicadores y comunicadoras indígenas de Latinoamérica

**DOAKO SARRERA**

**MAIATZEKO OSTEGUN DENETAN / TODOS LOS JUEVES DE MAYO - 19:00etan**

**Maiatzak 12 - Azebarri kulturgunea (ALGORTA)**  
Berbaldia - Mahai-ingurua: Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak (Euskaraz eta Gaztelaniaz)

Antolatzaileak

MUGARIK GABE  
Asociación de Comunicadores y Comunicadoras Indígenas de Euzkadi

**hiruka**  
Herri-komunikazioaren eraldaketa

Babeslea

DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS DE COMUNICACIÓN Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN

Informazio gehiagorako:  
Para más información:

[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

@mugarikgabe

Mugarik Gabe

---

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

@HirukaEus

HirukaEus

[#komunikatuzeraldatu](https://twitter.com/komunikatuzeraldatu)



## Getxo

# Ikus-entzunezko baliabideen bitartez, jabekuntzarako bidean

**Emakumeen jabekuntza lantzeko** doako tailerra egingo dute maiatzaren 23tik 27ra bitartean, Algortako Jabekuntza Eskolan; hilaren 17ra arte eman daiteke izena.



Getxoko Udalaren laguntzagaz antolatuta dute tailerra.

**M**aiatzaren 23tik 27ra bitartean izango da «Emakumeak Elkarrekikotasunean» minutu bateko bideoa egiteko doako tailerra, Kultura, Communication y Desarrollo GGKEak eta «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak antolatuta. Horretan parte hartu gura dutenek maiatzaren 17ra arte izango dute zabalik izena emateko epea, berdintasuna@getxo.eus helbidera eta 944 660 136 telefono zenbakira joz.

Doako tailer horren helburua da ikus-entzunezko baliabideen bitartez lortzea 18 urtetik gorako emakumeen jabekuntza. Tailerraren saioen ordutegia 16:30etik 20:30era izango da, eta lantegian, errealizazioaren gaineko oinarriko ideia batzuk ikasiko dituzte, gero, minutu bateko iraupena izango duen film labur bat egiteko, *Maitasunak* gaiari buruzkoa.

Amal Ramsis dokumentalista eta El Cairoko (Egipto) Emakumeek egindako Zinemaren Nazioarteko Jaialdiko zuzendariak emango du tailerra. Bere dokumental batzuk, tartean, *Solo sueños*, *Vida*, *Prohibido* eta *The trace of the Butterfly* saritu dituzte nazioarteko hainbat jaialditan. Tailerra esperientzia ibiltaria da, eta aurten Alejandro, El Cairon, Oaxacan (Mexiko) eta El Salvadorren ere egin dute. ◀

Harremanetarako: [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus)  
944 660 136

## «Zer egiten du preso batek espetxean?» berbaldia, barikuan

**A**lgortako Preso eta Iheslarien Aldeko Gazte Sareak «Zer egiten du preso batek espetxean? Nola bete denbora» berbaldia antolatu du bariku honetarako, maiatzaren 6a. Hitzordua 18:30ean ipini dute, Algortako Abian kultur elkartearen. Bertan, herriko preso politikoek espetxean egindako hainbat eskulan ikusteko aukera egongo da; halaber, preso-ohi batek bere bizi-penak kontatuko ditu, kartzelan egin izandako eskulanetako bat zelan egin erakutsi bitartean. Deialdia irekia da, eta gazte-sareak ahalik eta neska-mutil gehien hurbiltzeko deia egin du. ◀

## Zapatuan, hilaren 7an, kostaldeko Getxo ezagutzera doaz

**Z**apatuan, hilaren 7an, Bizarra Leipoan-ek kostaldeko ibilbide toponimikoa egingo du. Hitzordua 09:00etan ipini dute, Portu Zaharreko Etxetxun. Aurrekusi dutenez, ibilbidea 3 ordukoa izango da, eta tarte horretan Jeneratxu, Usategi, Arrigunaga eta Aixerrota ezagutuko dituzte, besteak beste. ◀

izenematea: [getxo.toponimia@gmail.com](mailto:getxo.toponimia@gmail.com)

# Tosuko landan parte hartzera deitu dute

**Aparkalekua egiteko obrak** hastear daudenean, erresistentziakoek iragarri dute landa hurbiltzeko hainbat dinamika baitituzte.

**J**oan den martxoan, Eusko Jaurlaritzak 5,8 milioi euroko diru-partida onartu zuen Getxoko Ibarbengoa metro-geltokiaren ondoko aparkalekua eraikitzeke. BPG Bizkaiko Garraio Partzuergoak uda aldean hasiera eman gura die Ibarbengoako metro-geltokiaren ondoko landan hiru solairuko aparkalekua egiteko lanei. Gune hori Tosu izenagaz da ezaguna, eta hantxe dago proiektuaren kontrako erresistentzia-kanpaldia, 2014ko irailez geroztik. Bertan «kanpatuta» daudenen arabera, Ibarbengoako disuasio-aparkalekuaren kontra egoteko hainbat arrazoi dituzte. Hala ere, behin obrak hasita, horiek gelditzea «oso zaila» dela argi duten arren, uste dute «posiblea» dela

hori lortzea. «Ideologikoki landu beharreko kontu bat da, irabaztea aukera bat da», diote. BPG-k aparkalekua eraikitzeke bere garaian eman zituen arrazoiak «itxurakeria hutsa» direla salatu dute erresistentziakoek, «eraikitzeke eskusa bat da. Porlan gehiegi dago Getxon; noiz arte jarraituko dute eraikitzen? Muga jarri behar zaiola!». Horrez gainera, elikadura-subiranotasunaren aldeko apustua egiten dute Tosukoek. Hori dela-eta, ortua landu eta haziakaz «esperimentatzen» hasi dira, hazitegimota ezberdinak landuz. Euren helburuetako bat da jendea landa horretara erakartzea, bertako ortuetan parte hartzeko, besteak beste. Gaur egun, 1.700 metro koadro inguru dituzte landututa, eta ortu komunitarioa ere badute. Halaber, hainbat talde batzen dira bertan, barbarako Agroasanblada, Chiapasen Aldeko Plataforma eta Tosuko asanblada bera. Iragarri dutenez, datozen egunetan hainbat jardura egingo dituzte landan bertan. ◀



Berbodromoa egingo dute hilaren 5ean, Areetan eta Itzubaltzeta/Romon. © GETXOKO UDALA

## Euskarak bere egin gura ditu Getxoko kaleak egunean

**U**dalerriko kaleak euskaraz bete guran, Euskararen Berbodromoa egingo du egunean, hilaren 5ean, Egi zu Getxo Euskaldun elkarteak. Guztira hiru saio egingo dituzte, goizean bi, 09:00etan eta 11:00etan; eta, hirugarrena, arrastian, Itzubaltzeta/Romon, 19:00etatik aurrera. Talde bakoitzak 6 pertsona izango ditu (dinamizatzailea eta bost lagun); hala, gai bakoitzari 15 minutu eskaini ostean, hurrengo-

ri ekiteko parte-hartzaileek mahaia aldatuko dute, berba-lagunak aldatu ahal izateko. Aurtengo erronka egun osoan 400 lagun baino gehiago elkartzea izango da; arrastian 100 lagun batu gura dituzte. Ez dago alde zuzeneko iragarri dutenez, arrastiko saioan Gure Etxea, La Mona, Arotza eta Museo tabernetan potea euskaraz eskatuz gero, pintxo bat jasoko dute dohainik. ◀



Erandoio

# Siriako umeen alde

**Erandiogoikoak elkartasun-festa hartuko** du aste-akabuan. Gurari-k dirua batuko du Siriako neska-mutilen alde.

Zapatuan eta domekan, Erandiogoiko Gurari kolektiboak Hirugarren Munduaren aldeko elkartasun-jaialdia antolatuko du auzoan berriro ere. Aurtengo ekitaldien helburua Siriako neska-mutilak laguntzeko dirua batzea da. Zapatuan hasiko da jaialdia, goizeko 10:00etan, Gurariko txistularien kalejiragaz, eta Goikolanda ikastetxeko gimnasioan azokatxo zabalduko dute. Bertan, salgai izango dira elkarteko eskulantaldeak sortutako objektuak. Azoka zabalik egongo da 20:00ak arte. Domeka goizean ere izango da erosteko



Gurariren kideek urtero antolatzen dute elkartasun jaialdia.

aukera. Goiz berean haur-jolasak ere izango dira, eta, egun osoan, *Erandoio atzo eta gaur* argazki-erakusketa ipiniko du Takolos irrati-klubak. 14:30ak aldera hasiko da herri-bazkaria; bertan argazkiak atera, eta arrastian

emango dituzte. Bazkari-txartelak 15 euroan eros daitezke; umeenak, 10 euroan. Ostean, bingoa eta mus-txapelketa izango dira. 19:00etan, karaokea hasiko da, eta Basaki musika-taldeak kontzertua emango du 00:30ean. ◀

## Parkingen gaineko udal mahaia, ikamikarako gaia

Astrabuduko aparkalekuen gabezia dela-eta, parkingen gaineko udal mahaian ozpindu egin dira hainbat talde politikoren arteko harremanak. Apirilaren 28ko udal bilkurak erakutsi zuen egoera hori. Lehenengo kexa EH Bilduk egin zuen. Koalizio independentistaren ustez, mahaiaren bigarren batzarrean hiru kontu adostu ziren: mahai gainean zeuden proposamenen hirigintza-txostena egitea, prentsa-ohar bateratua plazaratzea, eta hirugarren batzarra aste biren epean egitea. EH Bilduk Udal Gobernuari leporatu zion ez zuela bete «bat ere ez». Gainera, Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziari egoitzi zioten txostena egin barik koalizioaren behin betiko parkingaren proiektua deuseztatzea, eta Udalak egindako planoak EAJren mesederako erabiltzea. Bilbaok «hirigintza-aberraziotzat» jo zuen EH Bilduren proiektua. ◀

## Takolosek elkartasun-erronken balantzea egin du

Takolos irrati-klubak 4 *erronka*, 4 *kausa* elkartasuneko putxera-erronken emaitza jakinarazi die herritarrei. Egindako lau ekimenen bitartez, astrabuduarrek honako dohaintzak egin dituzte, denera: 1.849,03 euro, loteria dezimo bat, eta 15 kilo indaba. Caritasi 391,81 euro eta loteria dezimoa egokitu zitzaizkion, Coppi tabernaren aurkako eltzekadan. Eguzkilore tabernaren aurkako indaba-erronkan, 428,77 euro lortu zituzten, Down elkarteari emateko. Astrabuduako Futbol Taldearen erronkan batu zen diru gehien: 572,05 euro, Ulertuz elkartearentzat. Azkenik, Goitikogaz egindako saioan, 456,40 euro eta 15 kilo indaba eman zizkieten elikagai-bankuari. ◀

## Plater-tiroa hondakindegian ez egiteko eskatu dute

Jonathan Perez Ganemos Erandio Udal taldeko zinegotziak Udal Gobernuari eskatu dio baimen gehiago ez ematea Akarlandako hondakindegian plater-tiroen lehiaketak egiteko. Perezen iritziz, «Akarlanda eta bertako zabortegea ez dira lekurik egokienak horretarako; hondakindegia garbitu eta berreskuratu behar ditugu, eta ez gehiago zikindu». Ganemos-eko ordezkariak gogorarazi zuenez, Erandioko inguruetan badira plater-tiroa egiteko lekuak. Pasa den apirilaren 28ko udal bilkuran, Udal Gobernuak jakinarazi zuen dekretu bidez baimena eman duela Akarlandako hondakindegian plater-tiroa egiteko, maiatzaren 7an eta irailaren 2an. ◀



**Udaletxeko erlojua aztertuko** du Logroñoeko enpresa batek, Joseba Goikouria Erandioko alkateak Udalbatzari agindu zionez. EH Bilduk erogan zuen gaia udal bilkurara, erlojuak gauerdian 24 kanpai-hots jotzeagatik hainbat auzokide kexatu ostean; 12 izatea gura dute.



Itsasertzetik

## Erandioztarrok estralurtarrak gara...

Politikarien sinesgarritasuna aldapan behera doa. Inkesta ofizialek halaxe islatzen dute, urtez urte. Konfiantza galduz doazen biztanleak gero eta gehiago dira, trapu zikinak eguzkitara aterata. Ez da harritzekoa, beraz, Eusko Jaurlaritzak duen goiburua: «Pertsona helburu». Herritarronganako hurbiltasuna azpimarratu gura du, nonbait. Niri goiburu hori ironikoa eta, batez ere, iraingarria iruditzen zait egun. Zelan ez! Pertsona helburu ei duen Eusko Jaurlaritzak Erandioko gaixoak Gurutzetako ospitaletik Urdulizekora bidaliko ditu laster. Herritik urrunago. Akaso, erandioztarrok estralurtarrak gara Lakuatik ikusita. ◀

**GAVRKO**  
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84

txakoli  
**mota gane tx**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandoio  
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

portu zaharra bar

Portu Zaharra kalera 35  
48901 Algorta-Geltza  
Tf. 94 468 29 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



Leioa

# HAPOren aldaketa, Ibaiondo aldean



Industria-azpiegiturak dira nagusi Ibaiondon. © LEIOAKO UDALA

**Erabilera industrialerako barik**, merkataritza-guneak, bulegoak eta aparkalekuak jartzea proposatu dute; uztaierako onartu gura dute aldaketa.

Udalak partaidetza-prozesua ipini du martxan Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko, zehatz-mehatz Ibaiondoko 16B aldekoa. Gehienbat erabilera industrialaren erakinek (%62) osatzen dute eremu hori. Gainerako %38a merkataritzarako eta bulegoerako erabiltzen da. Iban Rodriguez Etxebarria alkateordeak azaldu duenez, «orain bertan jarri gura den edozer gauzak industriagaz lotuta egon behar du. Hori dela-eta, bertoko planeamendua aldatu nahi dugu merkataritza-guneak, bulegoak eta abarrak egin ahal izateko. Gune lasaiago bat sortuko genuke». Horrez gainera, bertan, 390 aparkaleku pribatu eta erabilera publikoko beste 74 leku egitea proposatu dute; espaloiak zabalago egitea ere bai.

Maiatzaren 2an egin zuten informazioa emateko batzarra, parte hartu gura zuten herritarrei aldaketaren nondik norakoak azaltzeko eta iritziak

jasotzeko. Rodriguezek azaldu duenez, «jendeak pentsatzen zuen orube horiek Udalarenak zirela eta HAPOren aldaketa gure kontu bat zela». Alkateordeak argitu duenez, aipaturako lur-sailak jabego pribatukoak dira: «Udalean horrelako eskaerak jasotzen ditugunean, agintariok egin ahal dugun gauza bakarra da baldintza batzuk ezartzea, eremua duinago egiteko. Tesuinguru horri lotuta daude lortutako aparkatzeko 74 toki publikoak».

Partaidetza-prozesua aurrera doa, eta maiatzaren 16ra arte, herritarren ideiak jasotzeko epea zabalik egongo da; udaletxean eman daitezke ideiak eta proposamenak. Prozesu hori amaitutakoan, Hirigintza Batzordeak hartuko du aldaketa-proposamena; eta azkenik, osoko bilkurara (seguruenik, maiatzeko udal batzarrera) eroango dute behin-behineko onarpena jasotzeko. «Dena ondo badoa, uztailean emango lioke behin betiko onarpena Udalbatzak», alkateordeak dioenez. ◀

## Daborduko irakurleen txartelak bateratzeko eskaera egin daiteke

Bilboko liburutegi-sarean sartu izanak arazoak sortu dizkio Leioako Udal Liburutegiari. Irakurzaleen artean, asko dira Bilboko bibliotekaren baten bazkide-txartela daukaten leioztarrak, Leioako txartela edukitzeaz gainera. «Sareko liburutegiko bazkideen erregistroa bakarria denez, orain bikoizketak gertatzen dira», arduradunek azaldu dutenez. Hori dela eta, komenigarritzat jotzen dute bikoizketak saihestea. Arazo hori daukaten irakurzaleek inprimakia bete beharko dute, eta zehaztu lehentasuna zein liburutegiri ematen dioten. ◀

## Aurkitutako bitxien ugazabak topatu gura ditu Udaltzaingoak

Azken urteetan herriko hainbat txokotan aurkitutako bitxien jabeak topatzeko ahaleginean dabilta udaltzainak. Horretarako, zerrrenda bat egin dute; bitxiak galdu dituztenak udal bulegotik pasa daitezke, 07:00etatik 14:00etara. «Bitxiak inskripzio bereziak eta pertsonalak dituzte gehienetan; beraz, ugazabek erraz identifika ditzakete; balio ekonomiko zein emozionala dute, gainera», azaldu dute udal arduradunek. Hala, Leioan azken urteetan bitxiren bat galdu izan dutenei zuzenduta, mezua zabaldu du udaltzainburuak. ◀

## Bilbaoren epaiketaren harira, tortura gaitzetsi du Udalbatzak

Leioa Libre-ren ekimenez EH Bilduk Laurkeztutako urgentziatzeko mozioa onartu zuen apirilaren 28an Udalbatzak. Maiatzaren 17an, Espainiako Auzitegi Nazionalean hasiko den Erika Bilbao Barcenaren kontrako epaiketaren harira, tortura gaitzetsi eta ekinbide politikoaren zilegitasuna aldarrikatu zuen udal erakundeak. EAJ, EH Bildu eta Esnatu Leioa alde azaldu ziren; PSE-EE eta PP, aurka. ◀

### Mobilizazioak

#### Maiatzak 14, zapatua

**Libre Eguna, Aldapako anfiteatroan.**

**17:30** Umeentzako tailerrak.

**18:00** Kalejira, Plaza Gorritik abiatuta.

**19:30** Babes-ekitaldia.

**21:00** Kontzertuak.

#### Maiatzak 17, martitzena

**20:00** Manifestazioa, Boulevardetik.

## Lan-egutegiaz kexu dira udal euskaltegiko langileak

Leioako Euskararen Erakundeak martxoaren 21ean onartutako 2016ko lan-egutegiagaz ez daude ados Mastitxu udal euskaltegiko irakasleak eta administrazio-langilea. Salatu dutenez, «egutegi horiek ez zeuden hitzartuta erakundearen eta langileen artean, langileek negoziatzeko denbora gehiago eskatua bazuten ere. Kontseilu Artezkarria osatzen duten gainerako alderdiek ere bilera atzeratzeko eskatu zuten, Udal Gobernuaren eta langileen arteko desadostasuna ikusita». Langileek protesta-ekintzak iragarri dituzte. Bestalde, udal agintariak ez dute gura izan plazaratutako ohar horren gaineko iritziak eman: «orain, epaiketaren prozesu batean sartuta gaude gai horrengatik; eta, beraz, momentuz, ezin dugu adierazpenik egin», adierazi dute prentsa-zerbitzukoek.

Udal hauteskundearen ostean, Leioako Euskararen Erakundearen kide berriak sartu izana litzateke arazoaren iturburua, udal euskaltegiko langileen ustez. Diotenez, «osaketa horretan



Mastitxuko langileek protestak egingo dituzte.

udal gobernua duen alderdiak (EAJ) du lehendakaritza, orain arte izan den legez. Baina, gure harridurararako, arazoak hasi dira lan-egutegia proposatzeko momentuan, ordura arte Udalaren eta euskaltegiko langileen arteko harremanak nahiko onak baitziren». Udalak onartu ei du administrariak urtean 62 ordu gehiago egin beharko dituela, eta irakasleek 23 ordu gehiago; «2017an, irakasleek 40 ordu gehiago egin beharko dituzte», langileek salatu dutenez. Udalhitz «bete» behar dutela argudiatu omen dute agintari leioztarrek. ◀

*Kalitatezko irakaskuntza euskaraz*

**BETIKO**  
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea



## Sopela

# Zaraten mapa egin du Udalak

**Ibilgailu asko dabilzan** gunetan neurtu dituzte zarata-mailarik altuenak; Loiola Ander Deuna eta Gatzarriñe kaleetan, besteak beste.



Hirigintza-garapenetako baliagarria izango da zarata-mapa. © SOPELAKO UDALA

Sopelako Udalak zaraten mapa egin du, udalerriaren egoera akustikoa zehatz ezagutzeko eta aztertzeko. Horren bitartez, «udalerriak ingurunea kudeatzeko beste tresna bat dauka; etorkizunearan poluzio akustikoari aurre egiteko prebentzio ekintzak planteatzeko baliagarria izango da dokumentu hori», agintari sopoloztarrek adierazi dutenez. Mapa osatzeko, zenbait neurketa egin dituzte sonometro bereziakaz, udalerriko bizitegi-guneetan, industria-guneetan, bide-guneetan, eta abarretan. Emaitzek argitu dutenez, zarataren sorburuak eta neurtutako datuak kontuan hartuta, Euskal Autonomiako Erkidegoko Sopolaren antzeko ezaugarriak dituzten beste udalerritaskotan ere, Sopolako joera berdintsuak identifikatu dituzte.

Egunez, ibilgailuen zirkulazioa da poluzio akustikoaren iturri nagusia.

Ibilgailu-dentsitate handiena daukaten gunetan izan ei dira zarata-mailarik altuenak; Loiola Ander Deuna eta Gatzarriñe kaleetan, besteak beste. Bestalde, metroa pasatzen den lekueetan ere, poluzio-guneak identifikatu dituzte. Maila txikiago batean, industriagaz lotutako poluzio akustikoaren eraginak ere topatu dira. Gaez, ordea, zarata-mailaren beherakada nabarmena igartzen da, udal agintari sopoloztarrek diotenez. Alde batetik, ibilgailuen zirkulazioa asko gutxitzen da; eta, bestetik, gaez ez dago metrozerbitzurik.

Bertoko arduradunek diotenez, «mapa egitea derrigorrezkoa da; goimailako instituzioek agindutako araudiak daude. Bestalde, zarataren kalitatea helburutzat jotzeaz aparte, dokumentu bat ere bada, eta etorkizuneko hirigintza-garapenaren oinarri izango da dokumentu hori».

## Udarako 12 lagun kontratatuko dituzte

Sopelako hondartzetako komunak eta dutxak garbitzeko 12 lagun (koordinatzaile bat eta 11 garbitzaile) kontratatu gura ditu Udalak, aurtengo udaldirako. Agintari sopoloztarrek gaineratu dutenez, kontratuak lau hilabeterako izango dira. Hala, beharginak hautatzeko prozesua hastea eskatuko diote Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Hautaketan parte hartu ahal izateko, garbitzaile izan gura dutenek 16 urtetik 65 urtera artekoak izan behar dute; gutxienez, 6 hilabeteko esperientzia eduki behar dute gar-

bitze-lanetan; eskola-ziurtagiria edo baliokidea aurkeztu behar dute; eta, azkenik, oinarriko euskara-ezaguerak (PL1) frogatu behar dute. Koordinatzaile-gaiei ere antzeko baldintzak ipini dizkiete. Esan barik doa kategoria bietako hautagaien zat ezinbestekoa izango dela enplegu-eskatzaille legez izena emanda egotea Lanbiden: «garbiketa-langileak, edo, oro har, garbitzaileak» okupazio-kodean. Lanbideren bulegoetan ez ezik, Behar-gintzan ere egin daiteke okupazio-kode horretan inskribatzeko eskaera, udal iturriek adierazi dutenez.

## Udako denboraldia hasi arte, doakoa izango da Sopolbus garraio-zerbitzua

Astelehenetik barikura, Sopolbus Asek Arrietara eta haur-eskola arteko bidea egingo du; besteak beste, Larrabasterrako metro-geltokitik, nagusien egoitzatik, osasun-etxetik eta adinekoen egoitzatik igaroko da. 08:00etan eta 09:00etan irtengo da autobusa. Alderantzizko bidea, berriz, 08:30ean eta 09:30ean egingo du autobusak, egoitzatik. Arrastian, berriz, 17:00etatik 19:00etara orduero aterako da egoitzatik, eta 17:30, 18:30 eta 19:30ean Atxabiribiletik. Zapatu arrastietan ere ibiliko da 17:00etatik 20:30era bitartean.

## Sekeko Gaztetxea «lurperatuko» dute herriko gazteek, zapatu honetan

I ndarrak «lan sozial, kultural eta politikoa egitera» bideratu gura ditu GAS Gazte Asanblada Sopoloztarrak. Hala, zapatu honetan, maiatzak 7, «hileta» egingo diote Sekekori, udal-etxeko plazan. 12:00etatik aurrera, grafiti-tailerra, xuxurlatzaileak eta ipuin-kontakteta egongo dira. Ondoren, herri-bazkari agroekologikoa (15:00), bingo musikatua (16:30), poteoa (18:30) eta kontzertuak (20:30) egingo dituzte. Daborduko salgai daude bazkarirako txartelak, Laiak tabernan eta Ugari dendan, 8 euroan; umeeke merkeago (6 euroan) dauzkate.



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ  
Abeltzaina

## Maiatzaren 1a San Mamesen

Domekan, Astrabudura joan nintzan langileen aldeko eskubideak aldarrikatzera. Kanean, pazifikoki, eguraldi onaz, ibilalditxo baten. Metroan, jende andana nasan. Niki, bufanda, bandera zurigorriak. Langileak lehen begikolpe. Geltoki bakoitzean, multzo handiak igotzen ziren, langile manifara gitxitxo batzuk, berriz. Berdin Erromon zein Negurin. Botea pasa eta gero baserritar lagun batez bat egin nuen Portalten, eta «hogeitaka urte kartzelan pasa dan preso batek ez zuen ulertzen, dagoen egoeraz hainbeste jende San Mamesera». Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Beti gertatu da, mobilizatzen direnek hobekuntzak lortzean, mobilizatzen ez direnentzat ere izatea. Hori aldatuko duen legea nahi dut.





Berango

# Antzerki amateurra, nagusi Antzokian!

**Maiatzaren 7tik 21era** bitartean, Bizkaiko hiru antzerki-taldek obra bana taularatuko dute Berangoko agerlekuan.

**B**erango Antzokia aktore amateurren topalekua izango da bosgarren urtez, maiatzaren 7tik 21era bitartean. Izan ere, agerleku horrek Antzerki Amateurren Jaialdia hartuko du datozen egunotan. Hala, denbora tarte horretan, Berango, Derio eta Sopelatik etorritako antzerki-taldek jardungo dute bertan.

Lehenengo, Sopelako Itzartu taldeak hartuko du Antzokia, hilaren 7an, zapatuagaz. Jaime de Armiñanen *Todas Somos Compañeros* antzezlanak aurkeztuko dute oholtza gainean. Umorezko lan horretan, bulego batean gertatzen diren gorabeherak kontatuko dituzte. Hurrengoak Derioko Sutondoan taldekoak izango dira; Alejandro Casonaren *La barca sin pescador*



Antzezlanak zapatuetan aurkeztuko dituzte, Berango Antzokian, 3 euroren truke.

lana antzeztuko dute, hilaren 14an, zapatuagaz. Obra horrek negozio-gizon gogor eta bihoz bako baten istorioa kontatzen du. Azkenik, hilaren 21ean, zapatuan, Berangoko Txirlora-Acadae antzerki-taldeak Moliere egile frantses klasikoaren *Las mujeres sabias* ikuskizuna antzeztuko du. Iragarri dutenez, barre egin eta ondo pasa gura dutenek antzerki emanaldi hori ikusi «behar» dute. Lan horretan, gainera, egileak

bere garaiko gizarte (XVII. mendea) kritikatu gura izan zuen. Antzokian lanean ibiliko diren hiru taldeak Fernando Ansoleaga berangoztarraren gidaritzapean jardungo dute. Ikuskitun guztiak arrastiko 07:00etan izango dira; 3 euroren truke.

Urtero legez, udalerriko eta inguruko jendea antzerkira zaletzea izango dute helburu jardunaldi horiek. ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)

## Uztailean, Leonera asteburu-pasa joango dira berangoztarrak

**U**da sasoiari Leonera joateko bidaia prestatzen dabilta Berangon, uztailearen 2tik 4ra, hain zuzen ere. Horretarako, interesa dutenek alde aurretik izena eman beharko dute kultur etxeren batean, hilaren 9a baino lehenago. Gehienez 40 lagunentzako lekua egongo da, eta bakoitzak 151 eta 230 euro artean ordaindu beharko ditu, gelaren arabera. Prezioaren barruan honakoa sartzen da: 3 izarreko hotela, pentsio erdian; bidaiak autobusez; Leonen eta Astorgan bisita gidatuak; katedralera eta Gaudi jauregirako sarrerak, eta haurrentzako bat. ◀

## Romeo eta Julietaren inguruko antzezlanak ikusteko zozketa

**B**erangoko Liburutegiak *Ante Romeo y Julieta* antzezlanak ikusteko sarre-rik bikoitz bi zozkatuko ditu hilaren 13ra arte liburuak maileguan hartzen dituztenen artean. Antzezlanak Bilboko Arriaga antzokian izango dira, hilaren 18an, eguaztenean, Shakespearearen heriotzaren IV. mendeurrena dela-eta hari gorazarre egiteko asmoz. ◀

info+: [www.berango.net](http://www.berango.net)

Plentzia

# Errefuxiatuen aldeko jaialdi solidarioa egingo dute zapatuan

**E**rrefuxiatuen egoerari aurre egiteko zerbait egin beharra dagoela jabetuta, Solidarias en Accion elkarteko Algorta, Gorliz eta Plentziako hiru emakumek, Galizia, Gasteiz eta Nafarroako beste hiru emakumegaz batera, Greziara joateko ekimen bat abiatu dute. Hala, maiatzaren 9an, astelehenean, sei horietatik, bost Greziara joango dira laguntza eskaintzeko asmoz. Hala, Idomeni eta Lesbosen hainbat GKEgaz harremanetan ipini eta egoera aztertu ostean, bertatik hurbil dauden Polikastrora joatea erabaki dute;

azaldu dutenez, bertan koordinatzen baitute boluntario guztien lana. Euren asmoa da bertan lanean dauden taldeei laguntzea, eta talde horiek behar dituzten gauzak bertan erostea. Horretarako, beharrezkoa izango duten diru guztia lortzeko, hainbat ekimen egin dituzte, berbarako dohaintzak eta masaje solidarioak. Horregaz batera, zapatuan, hilaren 7an, errefuxiatuen aldeko jaialdi solidarioa egingo dute Plentzian. Hitzordua 18:00etan jarri dute, Ontziola plazan. Jaialdiari hasiera eman eta ordu erdira, 18:30ean, Solidarias en Ac-

cion-eko kideek proiektuaren nondik norakoak ezagutaraziko dituzte. Ondoren, 19:00etan, ginkana kooperatiboa egingo dute errefuxiatuen egoera modu ludiko batean azaltzeko familia osoari. Azkenik, 20:30ean, jaialdia amaiera eman baino lehen, Plentzia Kantaguneak ingurua alaitu, eta zozketa ere egingo dute parte-hartzaileen artean. Jaialdian zehar ohe elastikoak, umeentzako tailerrak, garagardo-dastaketa eta pintxoak eskainiko dituzte. ◀

laguntzeko: ESO8 1491 0001 2621 8676 1314  
(Triodos Bank)

info+: [www.plentzia.eus](http://www.plentzia.eus)

**SARTU GURE WEB BERRIAN**  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)  
902 103 763

**kartelgintza**

**inprimategia**

**kopisteria**

**cianoplan**  
SOCIAL FINTEK



## Urduliz



Apirilaren 8an, Urdulizko ospitaleak hartuko dituen udalerrietako hainbat alkatek eta zinegotzik bisitatu zuten zentroa. IREKIA - E

# Ospitalea zabaltzear, garraioak auzitan dira

**Urdulizko ospitalea ekainean** zabalduko du Osakidetzak; aurrerantzean apurka-apurka gero eta zerbitzu gehiago ipiniko ditu. Harainoko garraioak dira berbabide.

Vicente Reyes Garraio, Mugi-kortasun eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko foru-diputatuak baieztatu du Urdulizko ospitalerako metro-zerbitzua ez dela 2017ko martxoaren amaiera arte hasiko. Izan ere, bertako metro-geltokia lurperatzeko obrak aurrez ezarri zen epean amaituko dira, 2016ko amaieran, eta ondoren funtzionamenduko eta abian ipintzeko probak egin beharko dituzte. Bien bitartean, Me-

tro Bilbaok orain ematen duen autobus-zerbitzua eskainiko du, Sopela eta Plentzia artean. Sozialistak pasa den astelehenean egin zituen adierazpenak Bizkaiko Batzar Nagusietan, EH Bilduk eskatutako agerraldian. Era berean, Reyesek argitu zuen Urdulizko ospitalera heltzen den errepidea urbanizatuta egongo dela uztaillaren hasierarako, hau da, zabalduko den datatik ez oso urrun: «orain zabalik dago, baina erabat urbanizatuta esan gura dut,

behin betiko zoladuragaz, seinalizazioagaz, eta abarregaz». «Dena dela, ospitalea abian jartzeko aurrez ezarritako dauden fase denak amaitu aurretik, metroak normaltasunez funtzionatuko du», gaineratu zuen.

Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdeko EAJren hainbat alkate batzartu ziren apiril amaieran diputatuagaz. Elkarte horretan, alkateek eskualde horietan Bizkaibusek dituen lineak moldatzea eskatu zioten, herritarrek Urdulizko ospitaleagaz lotura izan dezaten.

Aurretik, EH Bilduko alkateek ere metro- eta autobus-zerbitzuen maiztasunak argitzeko eskatu zuten. ◀

## Umore Gauen beste saio bat izango da zapatu honetan

Kultur etxeak zapatuan, 21:00etan, hartuko du Urduliz Umore Gauak zikloaren beste bakarrizketa-saio bat. Gonbidatua David Broncano umoregilea izango da. 1985ean Galizian jaioa, Broncano Andaluzian hazi zen. Informatika- eta Publizitate-ikasketak egin ondoren, 2007an hasi zen telebistako umore-saioetan parte hartzen. 2013tik aurrera, *El Club de la Comedia* saioaren ohiko partaidea da; beste saio batzuetan ere jardun du, aldi berean. Espainiako antzerki eta aretoetatik bira ere eman du, bere bakarrizketakaz. Londresen ere taula gainean egon da, *King Gong Show* saioaren saria eskuratzeko. Bestalde, hainbat kolaborazio egiten ditu SER katearen irratietan. Urdulizko emanaldirako sarrera 6 euroan eros daiteke kultur etxean bertan: astegunetan 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara, eta zapatuan, 09:30etik 14:00etara. ◀

info+: 946 763 631 / kulturo3@urduliz.net

## Liburutegiak ordutegia zabalduko du azterketetarako

Urdulizko udal liburutegiak gaur egungo ordutegia luzatuko du, ikasleek azterketa-garaian duten beharrianari erantzuteko. Udalak azaldu duenez, liburutegiak ordutegi berezia edukiko du zapatu arrastian eta domeka goizean. Tarte berriak aste-akabu honetan hasi, eta uztaillaren 3an amaituko dira. Zentro hori eta kultur etxea zabalik egongo diren ohi ez bezalako ordutegiak honakoak izango dira: zapatuetan 16:00etatik 21:00etara eta domeketan 09:00etatik 14:00etara. Hala ere, Udalak aurreratu duenez, «hauteskundeak ekainaren 26an izango direnez, asteburu horretan itxita egongo da liburutegia». ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

**TXIBERRI**  
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ  
94 676 07 15

**EKIN**  
TABERNA · JATETXEA

Bolue 4, ALGORTA  
94 608 04 62

**Unai**  
Taberna · Jatetxea

Algortako Etorbidea, 96. 48991 Getxo  
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura ixanez gero, elxera eroango dizugu egunkaria!



## Gorliz



11 aukera! proposamenak irabazi du lehiaketa. © UK MANKOMUNITATEA

## Euskara Agendak 11 aukera! eskainiko ditu

Gorliz eta Plentziaren Euskara Agendak baditu goiburua eta irudia: 11 aukera!. Joan den apirilaren 22an aurkeztu zituzten biak, Gorlizko Sertutxena aretoan. Guztira, 8 proposamen aurkeztu ziren lehiaketarako, eta denen artean, Arrate Sarriegi Otadui gorliztarren proposamen biek jaso zuten saria. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 20 herritar inguru hurbildu ziren aurkezpen horretara, eta lehiaketaren nondik norakoak azaldu ostean, lehiaketaren prozesuaren eta logoa zein goiburuaren azalpenak eman zituen irabazleak. Hala bada,

Gorliz eta Plentziako Euskara Agendak aurpegia hartuta, bada garaia euskarari lotutako agenda bateratu eta berezia osatzen hasteko: hurrengo proposamena hilaren 19an izango da, AEK euskaltegiagaz elkarlanean egingo duten mintzodromoagaz. Goizean Plentzian izango da, Ontziola plazan, 11:00etatik 12:30ak arte. Arrastian, berriz, Gorlizera egingo du salto euskaldunen topagune horrek. Ibarreta plazan egingo dute euskaraz, 18:00etatik 19:30ak arte. Aldez aurretik izena eman beharra dago. ◀

izen-ematea: [euskaraz@uribekosta.org](mailto:euskaraz@uribekosta.org)

## Udalekuetan izena emateko epea, zabalik hilaren 13ra arte

Zabalik dago daborduko Gorlizko Udalekuetan izena emateko epea, hilaren 13ra arte. 2004tik 2010era bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutako egitasmoa da, eta udalekuek ekainaren 27tik abuztuaren 26ra arte iraungo dute, asteko txandetan, astelehenetik barikura.

Antolatzaileek iragarri dutenez, udalekuetan parte hartzen duten umeek honako ekintza hauek egin ahal izango dituzte: jolasak eta pedaleko autoak, Astondo ibiltokian; bodyboarda eta ur-ginkana, hondartzan; eskalada eta abentura-parkea, aterpetxean; arku-jaurtiketa eta tiro-

lina, aterpetxean; eta bidezidorrak, mendian. Izen-emateak kultur etxetan egin ahal izango dira, hilaren 13a baino lehen. Gorlizen erroldatutako umeek 50 euro ordaindu beharko dituzte aste bakoitzeko; kanpoan erroldatutakoek, berriz, 82,5 euro. Hala ere, familia ugariak %15eko deskontua izango dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, izena ematerako orduan, Gorlizen erroldatuta ez dauden artean, Plentziako eta Lemoizeko neska-mutilek errolda-agiria aurkeztu beharko dute; gainerakoek, berriz, familia-liburuaren fotokopia. Lehentasuna Gorlizko umeek izango dute. ◀

## OHZ ordaintzeko laguntzak eska ditzakete gorliztarrek

Krisi ekonomikoa dela-eta, familia ugari arazoak izaten dituzte zergak ordaindu ahal izateko. Hori dela eta, familia horiei arnabidea eman guran, Gorlizko Udalak laguntza batzuk aurkeztu ditu. Hala, Hiri Ondasun Higiezin (OHZ) eta zaborren eta estolderiaren gaineko zergak ordaintzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak argitaratu ditu Udalak, errenta-maila


txikiko familia-unitate gorliztarrei begira. Jakinarazi dutenez, laguntza horiek jaso ahal izateko nahikoa baliabide ekonomiko ez izatea beharrezkoa da; hau da, 2014an familia-unitatearen gehieneko diru-sarreraren kopuruak ezin izango du 22.585,50 euro gaingitu, besteak beste. Gehieneko kreditu eskuragarria 20.000 eurokoa izango da. ◀

info+: [www.gorliz.eu](http://www.gorliz.eu)

## Uribe Kosta

## Liztor asiarrari aurre egiteko protokolo berria, martxan

Liztor asiarrari aurre egiteko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduketa-protokolo bat ipini du martxan, lurraldeko udalakaz batera. Halaber, aplikazio informatiko bat erabiliko dute, *vespa velutina* delakoaren suntsipena erregistratzeko. Udalen lan-kidetza hiru zereginetan oinarrituko da. Lehenik, herritarrek liztorren habien presentziaren gainean egindako deiak jaso, eta haien datuak erregistratuko dituzte. Lantik foru-enpresak garatutako aplikazio informatiko batera bidaliko dituzte jasotako deietatik lortutako datuak; gainera, aplikazioaren bidez, udalek kontsultatu ahal izango dituzte zeintzuk izan diren kudeatutako abisuak, eta, hala, herritarrei informazioa eman ahalko diete jakiteko ea habia erregistratu duten ala ez, eta, hala badagokio, ea suntsitu duten ala ez. Bigarrenik, udalek habia adierazitako lekuan eta aktibo dagoela egiaztatuko dute. Ikuskapen hori egiteko ardura

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) © DANIEL SOLABARRIETA

duenak spray berde batez markatuko du habia dagoen arbola edo egitura, herritarrek jakin dezaten habiaren berriz eman dela eta erregistratuta dagoela. Aktibo ez dauden habiei dagokionez, gurutze berde batez markatuko da. Azkenik, udalek abisua grabatuko dute aplikazio informatikoan, jasotako datuak txertatuz. Datu horien arabera eta aplikazioaren bidez, abisua Basalani jakinaraziko diote, eta, kasu berezitan, suhiltzailei. ◀

## Bizkaiko 4.741 umek aukeratu dute Udalekuak 2016

Bizkaiko Foru Aldundiak 7 eta 13 urte arteko 4.741 umeren eskaerak jaso ditu aurtengo Udalekuak programan parte hartzeko. Astialdi eta erkidego-asiaren arloan antolatzen da programa hori urtero. Guztira, 1.653 leku eskaini dituzte Bizkaian, eta horien guztien %5 urritasunen bat duten pertsonak gizarteratzeko gordetzen dute. Kanpaina horretarako gehien eskatu diren lekuak hauek izan dira: Zuhatza uhartea, Barria aterpetxea, Hondarribia aterpetxea, Zarautz, Legasa aterpetxea eta Gorlizko aterpetxea; aukeratu den hizkuntzari dagokionez, berriz, jaso diren eskaeratarik 4.598k euskara aukeratu dute umeen egonaldirako, eta 143ko gaztelania aukeratu dute. Sexuari dagokionez, datuak oso antzekoak dira: eskabideen % 51.20 mutikoenak dira, eta % 48.80, neska-toenak. Guztira, 4.519 eskola-umerentzako lekua egongo da, EAE osoan. ◀

info+: [www.gaztebiz.eus](http://www.gaztebiz.eus)

## Indarberrituta bueltatu da Euskaraz Olgetan egitasmoa

Aurten ere martxan jarriko dute Euskaraz Olgetan egitasmoa, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen. Egitasmoaren lehenengo txanda maiatzean eta ekainean izango da; bigarrena, berriz, irailean eta urrian. Egitasmoa maiatzaren 5ean, egue-nean, hasiko da Plentzian, arrastiko 05:30ean; eta urriaren 30ean, amaitu Sopelan. Hilero agenda bat izango da, eta udalerrri bakoitzeko kultura-agentetan agertzeaz aparte, Uribe Kostako Euskara Zerbitzuaren Facebook eta Twitter orrialdeetan ere egongo dira ikusgai. Hala, lehenengo saioan, puzgarrien parkea ipiniko dute Plentziako Ontziola plazan. Hilaren 6an, 7an eta 8an parke hori Urduliz, Gorliz eta Sopelan jarriko dute, hurrenez hurren. Maiatzeko bigarren aste-akabuan dino-sauroak egiteko tailerra egingo dute; hirugarrenean, ipuin-kontalariaren eta fantasiako pertsonaiak egiteko. ◀

facebook: [facebook.com/uribekosta](https://www.facebook.com/uribekosta)





Erandion ere saxofoi-topaketak antolatuta izan ditu Hamaika Saxek.

## Leioako II. Saxtearen egitaraua

### Maiatzak 10, martitzena

**20:00** Leioako kontserbatorioko saxo-ikasleen eta irakasleen kontzertua, Leioako Musika Eskolako auditorioan.

### Maiatzak 12 eta 13

Nacho Solana musikari eta pedagogoaren saxofoi-ikastaroa, Leioako kontserbatorioan. Izen-ematea daborduko itxita dago.

### Maiatzak 14, zapatua

#### Hamaikasax Eguna

**10:00** Partaideen harrera.

**11:30** Selmer eta Vandoren etxeetako hainbat saxofoi eta materialen aurkezpena, Mafer-ek lagunduta.

**12:30** Kaleko kontzertuak, herriko hainbat lekutan.

**14:30** Herri-bazkaria, Hamaikasax Eguneko partaide guztientzat.

**16:30** Parte hartu duten musika-eskolen amaiera-kontzertua, Leioako Musika Eskolako auditorioan.



# Saxofoiak kaleratzeko astea

**Saxofoiari eskainitako astea** hartuko du Leioak, maiatzaren 10etik 14ra. Musikariek eta zaleek haize-tresna horren doinuaz gozatzeko aukera izango dute.

Saxofoi-topaketak antolatzen ditu Hamaika Sax saxofoi-elkarteak. Datorren astean, martitzenetik zapatua, Saxtearen bigarren ekitaldia egingo dute Leioan, bertako Udal Musika Eskolaren eta Leioako Udalaren laguntzagaz.

Alberto Mielgok azaldu duenez, Leioako hitzorduan, «ekintza nahikotxo egongo da; besteak beste, ikasleen eta irakasleen kontzertua, Nacho So-

lana saxojolearen *master class*-a, Hamaikasax Eguna, eta Euskal Herriko saxojoleen topaketa». Mielgo Hamaika Sax elkartereko presidentea da, eta Leioako kontserbatorioko eta Erandio-ko Musika Eskolako saxofoi-irakaslea ere bai.

Saxofoi-astea edo Saxtea abiatzeko, etxean egindako ekimena izango dute martitzenean, maiatzaren 10ean: Leioako kontserbatorioko saxofoi-i-

kasleek eta -irakasleek emanaldia eskainiko dute, 20:00etan, Leioako Musika Kontserbatorioko auditorioan bertan. Hurrengo hitzordua saxoza-

## Saxofoiak kalera ateratzeko eguna izango da zapatua, haren doinuak zabaltzeko

le gutxi batzuek gozatu ahal izango dute; egunean eta barikuan, Herrialde Katalanetako Jorge Ignacio Solana pedagogo eta saxofonista ezagu-

nak ikastaroa emango du. 14 ikasle baino ez dira izango, eta izen-ematea itxita dago. Halere, entzuleak onartuko dituzte. Solanak musika-ikasketei ekin zien, zortzi urte zituela. Ondoren, Villajoyosa, Alacant, Musikene eta Montpelierren segitu du hobetzen musikari eta zuzendari izateko. Hainbat sari irabazi ditu, Herrialde Katalanetan, Italian eta Gaztelan. Saxofoi-jole trebea izateaz gainera, ospea dauka irakasle den aldetik.

Azkenik, zapatuan, saxofoiak kalera aterako dituzte, haien doinuak herriarren artean zabaltzeko. ◀

info+: [hamaikasax@gmail.com](mailto:hamaikasax@gmail.com) / 635 757 231

## ‘Emakumeak Musikan’ jaialdia hasiko da Getxon

Aste-akabuan, Emakumeak Musikan jaialdiaren 16. edizioa hartuko du Areetako Andres Isasi musika-eskolak. Zapatuan, Quinteto Casulana boskote valentziarrak emanaldia eskainiko du 19:00etan. Getxoko Kultur Etxearen arabera, «kontzertu-aretoetan nekez entzuten diren konpositoreen lanak joko dituzte». Taldea osatzen dute arlo sinfonikotik eta musika-eskoletatik datozen bost musikari profesionalek; hari-instrumentuak eta pianoa jotzen dituzte. Taldea 2005ean sortu zuten Sabrina Pacuccik (biolina), Pilar Parreñok (biola), Cristina Aguilera (biolontxelo)

eta Renata Caserok (piano). Orduan, Cuarteto Casulana izenagaz bataiatu zuten taldea, Maddalena Casulanaren omenez. Bera da mendebaldeko musikaren historian musika inprimatua argitaratu zuen lehenengo emakume konpositorea, XVI. mendeko Italian. Iaz, ordea, Esther Vidal biolinista batu zitzaizen, boskotea osatuz. Domekan, ordu berean, Anna Margules musikari mexikarrak flauta eztiaren errezitaldia emango du, musika elektronikoak eta bideoek lagunduta. Emanaldietan sartzeko, aurretik gonbidapena hartu beharra dago kultur etxeetan. ◀

info+: [Annamargules.com](http://Annamargules.com)

## Bizkaiko Bertsolari Txapelketa aurrera doa

Imanol Uria Albizuri algortarra nagusitu zen pasa den zapatuan, apirilak 30, Derioko Gurea aretoan egindako BBTren Udabarriko Fasearen kanporaketan. Garaipenagaz batera, Uria sailkapenaren buruan dago, metatutako 189 puntuei esker. Saioan, Mikel Goiriena mungiarra izan zen algortarraren lehiakiderik gertuena. Horren ostean, Beñat Vidal leioaztarra sailkatu zen. Itxaso Paia algortarra, ordea, seigarren geratu zen. Osterantzean, aste-akabu honetan beste kanporaketa bi jokatu dira, biak 17:30ean: bata, zapatuan, Sodupeko kultur etxean, eta, bestea, domekan, Orozkoko Donibane

aretoan. Lehenengoan, Josu Landeta getxoartzarrek eta Peio Arondo algortarrak parte hartuko dute. Bigarrean, berriz, Joanes Igeregi sopoloztarren eta Ekaitz Larrazabal *Katxo* algortarraren txanda izango da.

Bestalde, pasa den martitzenean Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa hasi zen Algortako Azebarri kultur gunean. Beste hiru kanporaketa jokatu dituzte Bermeo, Deustu eta Elorrioren. Ondoren, maiatzaren 22an, finala eta egun osoko egitaraua izango da Algortako Fadura kiroldegian. Sarrerak daborduko salgai daude. ◀

info+: [Bertsozale.eus](http://Bertsozale.eus)




# hirukagenda

Uribe Kostako astekarria

2016ko maiatzaren 5etik maiatzaren 11ra arte



hiruka.eus



Ken Zazpi Phoenixopus diskoaren kantak joko ditu Ereagan. SERRANO PRODUKZIOAK

GETXO

## Bi egunean, musika izango da nagusi Ereagan

Uda aurreko kontzertuak egiteko leku izango da aurrean ere Algortako Ereaga hondartzako apartakalea, Getxon. Barikuan, maiatzak 6, Ken Zazpi taldeak *Phoenixopus* azken lana aurkeztuko du, 22:00etan; eta biharamunean, zapatuan, Guda Dantza, Rubia eta El Inquilino Komunista banda getxoztarrek joko dute, 21:00etatik aurrera. Ohi den legez, sa-

rrera doakoa izango da. *Phoenixopus* izenburuko zortzigarren diskoan sinbologia berritzaileaz baliatu da Ken Zazpi; pop-rocka eta psikodelia uztartzen dituen musika-unibertsio berezia sortu dute. Orain dela urte bi eta erdi Euskadiko Orkestra Sinfonikoagaz eginiko elkarlanaren ostean, Gemrikako seikoteak «esperimentazioaren eta doinu elektronikoen alde-

ko apustua egin du, ohiko mezu sozialak eta politikoak baztertu barik».

Zapatuari dagokionez, hiru taldek joko dute *Getxoko Doituak: Lehenetik gaur arte* izeneko saioan. Guda Dantza seikote gazteak emango dio hasiera emanaldiari; ondoren, Sara Itziguez buru duen Rubia taldea izango da oholtzara; azkenik, El Inquilino Komunistak biribilduko du saioa. ◀

LEIOA

### Goizean eta arrastian egingo dute margolari gazteen lehiaketa

Domeka honetan, maiatzak 8, Margo-lari Gazteen Sariaren 19. edizioa egingo dute udalerrian zehar. Margolari gazteak 08:00etatik 17:00etara lehiatuko dira; 08:00ak eta 10:00ak bitartean, oihalei zigilua jarriko zaie Aterpe Leioa Gaztegunean (Aldapabarrena, 2). Leku berean, 15:00etatik 17:00etara dute pintoreek lanak entregatzeko tartea. ◀

info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)



2016/05/05 - 20016/05/06

### Gure lurra, gure etorkizuna izeneko erakusketa

Liburutegi nagusiko sarrera (EHU) | Leioa  
Bizilurrek, EHNE Bizkaiak, Etxaldeak eta EHUk antolatuta. Elikadura Burujabetzaren Astearen barruan. Sarrera, doan.

2016/05/05 - 09:00 / 11:00 / 19:00

### Berbrodromoa

Escola plaza (Areeta) | Getxo  
Egizuk antolatuta. Arrastiko saioa Itzubaltzeta/Romon izango da. Info+: 619 935 541

2016/05/05 - 15:00

**Soberania alimentaria y TTIP**  
izeneko berbaldia



GORLIZ

### Informazioa zabaldu eta jolasak eskainiko ditu Gure Esku Dagok

Gorliz eta Plentziako Gure Esku Dago taldeak jaialdia antolatuko du domeka honetarako, maiatzak 8. Hitzordua 12:00etan jarri dute, Gorlizko Jubis taberna aurreko plaza txoan; euria bada, Iberren egingo dute. Besteak beste, infor-mazioa banatuko dute, eta musika, dantzak, umeentzako tailerrak eta lurcha eskainiko dituzte. ◀

2016/05/07 - 16:30-22:00

### Kamiseta-tailerra

Topalekua (Goienkale, 25) | Plentzia  
Marrazki edo irudi bako kamiseta (lisoa) eroin behariko dute etxetik parte-hartzaileek. Doan.

2016/05/07 - 19:00

### Casulana boskotea

Areetako musika-eskola | Getxo  
*Emakumeak musikari* jaialdiaren barruan. Hari-tresnak eta pianoa jotzen dituzte. Gonbidapenagaz; kultur etxean jaso daiteke.

2016/05/07 - 19:00

**Todas somos compañeros**  
antzezlan

Berango Antzokia | Berango



SOPELA

## Eutsi edo hil lanaren emanaldia, Kurtzion

Mugarik Gabe erakundeak eta HIRUKAK antolatuta, eguen honetan, maiatzak 5, *Eutsi edo hil* dokumentala egongo da ikusgai, euskaraz, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrera, doan. ◀

BERANGO

## Ereiteko ekitaldia, GED taldeagaz

*Erabakitze*ko *eskubidea erein dezagun!* goiburupean, ekitaldia egingo du domekan, maiatzak 8, Berangoko Gure Esku Dago taldeak; hitzordua 12:00etan ipini dute, Moreagan. Zuhaitz-haziak antolatzailerik banatuko dituzte. ◀

GETXO

## Mintza Egunerako autobusak prest

Euskal Herriko mintza-lagunen jaia Atarrabian izango da aurtten, maiatzaren 14an. Hala, antolatutako autobuse-tako bat Getxotik irtengo da; maiatzaren 6ra arte dago izena emateko. ◀

info+: [www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus)



Julia Farber batu zaio Ana Capillari mintza-gaitaldearen *Basati* ikuskizuna egiteko. © ANA CAPILLA

# Basati dantza-saioa, Sopelan

Ana Capilla eta Julia Farber dantzarien azkenengo sormen-lana da *Basati*. Kurtzio kultur etxean aurre-estreinatuko dute natura eta mugimendua batzen dituen obra; Leioako Umore Azokan egingo dute estreinaldia; hilaren 20an eta 21ean eskainiko dute, Pinosolon, 19:00etan. ◀

**Noiz:** Maiatzak 7, zapatua.  
**Ordua:** 20:00  
**Non:** Kurtzio kultur etxea.  
**Sarrera:** 3 euro.

Liburutegi nagusia (EHU) | Leioa

Elkadura Burujobetaren Astearen barruan, Andoni Garciak (COAG) eta Sonia Ingunzak (Etxaldeko Emakumeak) berba egingo dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/05 - 17:30-19:30

## Euskaraz Olgetan: puzgarriak

**Astillero plaza | Plentzia**  
Hilaren 6an, 7an eta 8an egongo dira hurrenez hurren Urdulizko Antisonekoa plazan (17:30-19:30), Gortizko Ibarreta plazan (12:00-14:00) eta Sopolako Jauregizar plazan (12:00-14:00).

2016/05/05 - 20:00

## Sexpearemente izenburuko umore-antzezlan

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/07 - 21:30

## El Capitan Elefante eta Fominder taldeen zuzenekoak

**Xurut pizza-bar | Gortiz**  
Indie rock eta post-punk kontzertuak. 5 euro.

2016/05/06 - 19:00

## Eutsi edo hil herri indigenen gaineke dokumentala

**Kurtzio kultur etxea | Sopela**  
Mugarik Gabe GKEak antolatuta, HIRUKA komunikazio-taldeagaz elkarlanean.

*Komunikatuz eraldatu - herriak euren komunikazioaren jabe* jardunaldien barruan. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/05/07 - 09:00

## Toponimia-ibilbidea: Kostaldeko Getxo

**Etzetxu (Algortako Portu Zaharra) | Getxo**  
Bizarra Lepoan euskara-elkarreak antolatuta. Euskaraz. Parte-hartzea, doan. Izena emateko: 688 635 350 edo [getxo.toponimia@gmail.com](mailto:getxo.toponimia@gmail.com).

2016/05/07 - 10:00

## Geologia ibilaldia

**Galeako forteko aparkalekua | Getxo**  
EHUK antolatuta. Ondare geologikoa ezagutzeko egun osoko txangoa, Galea lurmuturretik Sopolako hondartzetaraino. Harremanetarako: [servicios.scigea@gmail.com](mailto:servicios.scigea@gmail.com)

2016/05/07 - 12:00etatik aurrera

## Sekeko gaztetxearen hileta

**Udaltzeko plaza | Sopela**  
Besteak beste, tailerrak, herri-bazkari agroekologikoa, poteoa eta kontzertuak egongo dira. Bazkairako txartelak Laik tabernan eta Ugari dendan daude salgai.

Antzerki Amateurraren jaialdiaren barruan. Sopolako Itzartu antzerki-taldeagaz.

Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/05/07 - 20:00

## Umore-bakarrizketak

**Astrabuduko kultur etxean | Erandio**  
Encomendados zirkuituaren barruan. Dani Fontecha eta Gonzalo Jimenezegaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/07 - 21:00

## Umore Gaua: David Broncano

**Kultur etxea | Urduliz**  
Gaztelaniaz. Sarrera: 6 euro.

2016/05/08 - 09:00-14:00

## Txori Kantariaren 24. Sariketa

**Ondargana | Gortiz**  
Euria bada, pilotalekuan egingo dute.

2016/05/08 - 17:30

## Dantzaldia orkestragaz

**Azoka zaharra (Altzaga) | Erandio**  
Pergola taldeak joko du. Sarrera, doan.

2016/05/08 - 18:00

## Home, hogar dulce hogar animazio-filma umeentzat

**Berango Antzokia | Berango**  
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/08 - 19:00

## Txorimalo gaztetxearen gaineke hausnarketa-saioa

**Aldai Patronatua (Algorta) | Getxo**  
Apirilaren 16an egin zuten lehenengo saioa. Euskaraz. Parte-hartzea, libre.

2016/05/08 - 19:00

## Anna Margules musikaria

**Areetako musika-eskola | Getxo**  
*Emakumeak musikan* jaialdiaren barruan. Flauta ezta jotzen du. Gonbidapenagaz; kultur etxean jaso daiteke.

2016/05/10 - 20:00

## Techo y comida pelikula

**Kultur Leioako entzungela | Leioa**  
Perseo Zineforumaren barruan. Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/05/11 - 18:00

## Alerta ante la dependencia izenburuko berbaldia

**Nagusien etxea | Plentzia**  
Zainduz egitasmoaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

aloi  
hizki  
ak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN  
V. LEHIAKETA

# argihizkiak.com

Maiatzaren 31ra arte  
bidali zure berbak

egizki!



hiruka





Uribe Kosta institutuko DBH 1. mailako ikasleak, Martin Abrisketaz eta Matilde Usubiagaz, iragan urrian. © URIBE KOSTA INSTITUTUA

# Gerra-bizipenak, erakutsi

**Uribe Kosta institutuko** ikasleek etxeko 36ko gerrako bizipenak kontakizun bihurtu, eta erakusketa bat prestatu dute; Plentzian eta Sopelan ikusi ahal izango da.

**P**lentziako Uribe Kosta institutuko DBH 1. mailako ikasleek 36ko gerraren inguruan ekimen berezia garatu dute ikasurte osoan, Balio Etikoak ikasgaiaren

barruan. Horren fruitu da maiatzaren 6an, 18:00etan, Goñi Portalen aurkeztuko duten argazkiz eta testuz osatutako erakusketa. Azaldu dutenez, «pil-pilean dagoen Siriako Gerra abia-

puntutat hartuta, ikasleek etxean galdetu dute nola bizi izan zuten etxekoek Gerra Zibila. Gero, bakoitzak etxeko kontakizunak paperean adierazi ditu». Kontakizun horiekaz eta «etxetik eka-

ritako argazkiakaz» osatu dituzte erakusketaren 20 koadroak. Argazkiak, «gerra garaikoak eta gaur egunekoak dira. Irigana eta oraina lotuz», adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, urte askotako isildu behar hura gaindituz, belaunaldien arteko transmisio zuzenari bide emanez, etxeko arteko aitita-amama eta biloben arteko zubiak ibiliz, esan daiteke egundoko ariketa polita egin dutela Uribe Kostako ikasleek. Horrez gainera, gaia jorratzen duen *La Lengua de los secretos* (Roca, 2015) liburuaren idazle Martin Abrisketa arrigorriagarraren berbaldia ere izan zuten institutuan; Arrigorriagakoak ezagututakoak eta lanean jasotakoak entzun zituzten, eta ikasleek eurek etxean batutakoak hari kontatu zizkioten. Abrisketaz batera, «gerrako ume» izandako Matilde Usubiagaren lekukotasunak ezagutzeko aukera ere izan zuten; bera liburuko protagonistetako bat da.

## Erakusketa

Egindako lan eskerga erakustea merezi zuelakoan, dena prestatzeko beharrei eutsi zieten ikasleek... Eta hala, ikasurte akabu honetan, emaitza jendarteratzeko ordua da: erakusketa Goñi Portalen ikusi ahal izango da maiatzaren 6tik 20ra; aipatu legez, aurkezpen-ekitaldia lehenengo egun horretan bertan egingo dute, arrastiko 06:00etan. Ostean, Sopelako Kurtzio kultur etxean ere ikusgai egongo da kontakizunen erakusketa, maiatzaren 30etik ekainaren 17ra bitartean. ◀

## OpenOffice-aren 4.1.2 euskarazko bertsioa eskuragarri dago

**G**etxoko Jon Peli Oleagak jakinarazi digunez, OpenOffice-ren 4.1.2 euskarazko bertsioa daborduko jaits daiteke. «Microsoft-en bulego-suitearen ordezkaske ezagunena zen OpenOffice. Gero, ezagunak diren arrazoiengatik, bi proiektu ezberdinetan banandu zen proiektua (LibreOffice eta gaur egungo Apache OpenOffice)», akordura ekarri du Olegagak, Bigarrenaren, «OpenOffi-

ce-ren euskarazko bertsioak zaharkituta geratu ziren»; berriak euskaratzeko lana egin du getxoztarrak. Argitu duenez, «suiteak norbere ordenagailura jaisteko arazo nagusia erdaraz idatzitako webgunetik jaitsi beharra izan da; hori erraztearen, Apache OpenOffice-ren webguneko orri nagusiak edo premiazkoenak» euskarara ekarri ditu. ◀

Jaisteko: [www.openoffice.org/eu](http://www.openoffice.org/eu)



26 lekutan, 16 eremu eszeniko izango dira; lehenengo aldiz domeka gauera arte. UMORE AZOKA

## Kaleko arteen Leioako azokak dena prest dauka hilaren 19rako

**M**aiatzaren 19tik 22ra izango da Leioako Umore Azoka aurten, eta osagai denak eta egitarau osoa aurkeztu zituzten pasa den astean. Kale-arten erakustaldi, jaialdi eta harremnetarako gunean, 50 konpainiak parte hartuko dute; 54 ikuskizun erakutsi, eta 125 emanaldi eskainiko dituzte; horietatik, erabateko 21 estreinaldi. Umore Azokako zuzendari Ana Lopez Asensio azaldu zuenez, «jaialdia da; festa

da, eta azoka da. Jaialdia da, kalitatezko programazio oparoa eskaintzen duelako; festa da, Leioa jendez bete eta festa-giroan murgiltzen duelako; eta azoka ere bada, kale-arten profesionalen topalekua delako; topaleku handia gainera, 200 profesional elkartzen direlako». 27. edizio honetan programaren kalitatea, aniztasuna eta diziplinen arteko oreka azpimarratu ditu. ◀

info+: [hiruka.eus](http://hiruka.eus)



Sekula Betikotik

ITXASO PAYA RUIZ  
Sortzailea

## Traktoreak eta zapaburuak

**G**ogoan daukat nola txikitzen Fadura joaten ginen ikastolatik, igeri egiten ikastera. Ikasleok bikoteka egin behar genuen bidean aurrera. Txutxiren baserritik aurrera dena zen landa berdea. Bide-txoaren ertzean erreka bat ere bizi zen eta bertan zapaburuak ezagutzeko aukera izan genuen hainbatek. Nor ez da ba bertako zapaburuak hartuta, etxera eraman eta igel bihurtzeko zain egon inoiz? Gaur egun ikastolako umeek Fadura joaten jarraitzen dute, igeri egiten ikastera. Bide-txoaren ertzean traktoreak daude zapaburuaren orde. Agian traktoreak etxera eraman nahiko dituzte ikasleek, inoiz igel bilakatuko diren esperantzaz. ◀



# «Gizartearen eraldaketa bultzatzeko tresnatzat daukagu artea»

## Plataforma Tirante artista-taldeak

*Berdintasunaren taupadak* izenburuko dokumentala plazaratu du.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**E**goitza Lutxanako eskola zahar-  
rean daukan kolektiboak artea erabiltzen du «eraldaketa soziala bultzatzeko» asmoz. Besteak beste, adierazpen artistiko bihurtzen dute hainbat gobernu kanpoko erakundek eta gizarte-mugimenduk egiten duten lana. Apirilaren 21ean *Berdintasunaren taupadak* dokumentala aurkeztu zuten Bilboko Sarean kultur elkartean.

### Zerk bultzatu zintuzten dokumental hau egitera?

**Estibaliz Villa:** Aitortu behar dugu ikus-entzunezko lan bat egiten dugun bigarren aldia dela; lehenengoa duela urte batzuk egiten genituen. Noviem-  
bre Kulturala jardunaldien 12. edizioan egin genuen, jaialdi horren urte guztietako irudiak batzeko asmoz.

**Constanza Lobo:** *Berdintasunaren taupadak* dokumentala izenburu berbera daukan ikuskizunetik dator; askotan antzeztu izan dugu boluntarioraren alde, emakumeenganako indarkeriaren aurka... Ekitaldiaren arabera moldatu ohi dugu ikuskizuna. Dokumentalak, berriz, adierazten du arteak ere bere lekua daukala komunikazioa lantzeko, eraldaketa sozialaren bidean.

### Zer aurkituko dugu bertan?

**Jose Ibn:** Artea sentsibilizazio eta eraldaketarako tresna egokia dela ikus de-



Aiara Sedanogaz (ez dago argazkian), Estibaliz Villa, Andion Iturbide, Jose Ibn eta Constanza Lobo artistek osatzen dute Plataforma Tirante.

zakegu dokumentalean; oraingo honetan, genero-indarkeriari heltzeko erabili dugu. Bide batez, biolentzia-mota hori gizartearen edozein arlotan egon daitekeela agerian uzteko ere balio dezake dokumentalak; konturatzeko ez bagara ere, egon badago.

### Zertan laguntzen dute arazo horietaz jabetzen adierazpen artistikoek?

**J.I.:** Artea barruraino heltzen da; sentimenduak kolpatzen ditu. Barne-aldaketarako bidea ahalbidetzeko balio dezakete adierazpen artistikoek.

### Genero-indarkeriaren arazoari irtenbiderik ematen diozue dokumentalean?

**J.I.:** Irtenbidea baino, horri aurre egiteko bide bat erakusten dugu. Borroka kolektiboa gozamenaren bidez egitea bultzatzen dugu guk. Arazoaren

muinera heltzeko modu interesgarria da ikuskizun batez gozatzeko batu, arazoaz jabetu, eta, batera, horri aurre egiteko pausoak ematen hastea. Esaterako, dokumentala Sarean elkar-

“Eraldaketa soziala helmuga, borroka kolektiborako, gozamina sustatzen dugu”

tean aurkeztu genuenean, ikusle denek amaitu zuten abesten. Aurretik, Erandioko Kalezulo gaztetxean egin genuen aurrestreinaldia.

### Umore Azokan parte hartuko duzue.

**E.V.:** Hala da, bai. Maiatzaren 20an eta 21ean Boulevard 2 gunean eskainiko

dugu *Tras la frontera* lana; 19:00etan eta 20:00etan izango dira saioak. Urtebetez ibili ginen ikuskizuna lantzen 2015ean, CEAR Euskadi elkarteagaz batera. Asilo-krisiaz eta errefuxiatuen aferaz dihardu lan horrek; oroimen historikoagaz alderatzen dugu, euskaldunok 1937an bizi izandakoa gogoratu. Ikuskizunak dantza, antzerkia eta musika batzen ditu.

### Aurretik, zapatu honetan Sopelan egongo zarete.

**E.V.:** Sekeko gaztetxea ixtea erabaki dute, GAS Gazte Asanblada Sopeloztarra indartzeko asmoz; beste hainbat taldek legez, kontzertua emango du Plataforma Tirantek sustatutako Mis ovarios 33 taldeak. Uztailean, berriz, Medicus Mundigaz landutako kale-ikuskizuna estreinatuko dugu. ◀

info+: [plataformatirante.org](http://plataformatirante.org)

Zu eta biok, **hirukan**, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,  
Denon babesa eta parte-hartzea,  
Bultzada ekonomikoa ere bai!

Urtean  
**35€**  
baino ez

[hiruka.eus/harpidetza/laguna/](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/)  
944 911 337  
[hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**hiruka zaitez!**



Trukean: zozketak, sariak,  
astekarria eguaztenero...



## «Ume euskaldunak alfabetatzea zen helburua»

**Kili-Kili. Euskara pozgarri** erakusketa ekainaren 26ra arte egongo da ikusgai Bilboko Euskal Museoan. Bertako Udalak eta Labayru Fundazioak antolatu dute espozizioa, euskarazko aldizkariaren 50. urteurrenean. Horrez gainera, dokumentala eta liburua egin dituzte; Akaitze Kamiruaga Garitaonandia Labayruko kide urduliztarra ibili da, lankideakaz batera, horiek denak prestatzen.



KEPA UGARTE MARTIARENA

**Gaur egun bestelako komikiak ezagutzen dituzten gazteei, zelan azalduko zenieke Kili-Kili zer zen?**

*Kili-Kili* komikia izatera heldu zenerako, aurretik beste pauso batzuk emanda zeuzkan. Bilboko San Anton elizako katekesi-talderako sortu zen materiala zen hasieran *Kili-Kili*; fotokopietan banatzen ziren horri xume batzuk baino ez ziren. Bizpahiru orri horiek katekesiaren ekintzen berri izateko balio zien haurrei: zelako irteerak egingo ziren, mendira joango zirela... Gainera, hori dena dagokion testuinguruan kokatu beharra dago; diktadura-garaian oraindino, garai ilunak sufritu ostean, 60ko hamarkadan loraldi moduko bat egon zen. Hasi ziren berriro kontzientzia hartzen euskara indartu egin behar zela eta euskal kulturaren garrantziaz; garai hartan sortu ziren mendi-taldeak, abesbatzak, antzerki-taldeak, dantza-taldeak... Aurten hasi dira horretariko talde batzuk euren 50. urteurrena ospatzen, *Kili-Kili*-k berak egin duen moduan.

**Zein izan zen hurrengo pausoa?**

Nahiz eta fotokopia xume batzuk izan, umeen artean arrakasta itzela eduki zuten, eta, ondorioz, ez ziren izan agintarien gustukoak. Debeku moduko bat ere etorri zen... Orduko *Kili-Kili* pertsonaia ez zen gaur egun txapelagaz eta laukidun kaikuagaz ezagutzen dugun hori. Hala ere, bazegoen beste mutiko bat *Kili-Kili* izenekoa; aldizkaritxo horren azken zenbakia izango zela pentsatzen zuten, agur moduko bat egin zuen *Kili-Kilik* esanez bera gaixorik zegoela

eta bera osatuko zela umeez berari gutun bat idatziz gero. Baina argitalpenaren azkena izango zenak alderantzizko eragina eduki zuen: gutun piloa hasi ziren jasotzen San Anton elizan. Orduan, don Klaudio Gallastegi abadea eta Jose Antonio Retolaza aldizkariaren sortzailea konturatu ziren herrietako umeez euskaraz berba egiten bazekitela, baina neska-mutiko haiek alfabetatu barik zeudela; ez zekiten idazten, ezta irakurtzen ere. Ikusi zuten hor egin behar bat zegoela; *Lan eta lan* koadernoak sortu zituzten. Argitalpen horretarako sortu zen guk ezagutzen du-

“ Gaur egun lanean diharduen Euskarazaleak erakundeak bere ibilbide osoan lagundu du *Kili-Kili* aldizkaria ”

gun pertsonaia. 1969tik 1972ra bitartean, 12 zenbaki atera zituzten.

**Euskarazaleak elkartearen laguntza ere berebizikoa izan zen, ezta?**

Derrigor aipatu beharreko erakundea da; *Kili-Kili* bizpahiru orriko argitalpena baino ez zenean, debeku moduko hori etorri zenean, Euskarazaleak taldeagaz

elkarlanean ibili ziren behar ziren baimenak eskatzen administrazioan, Madrilan, eta abarretan. Gaur egun oraindino existitzen den Euskarazaleak erakundeak bere ibilbide osoan lagundu izan dio *Kili-Kili*-ri.

**Zer ziren *Lan eta lan* koadernoak?**

Umeez betebeharreko ariketak eta kopiatzeko testuak agertzen ziren bertan; batez ere ume euskaldunak alfabetatzea zen helburua. Baina bazeukan alor berritzaile bat: jolasa zen garrantzitsua. Orduko eskolan, neska-mutiek ezagutzen zutena zigorra izaten zen; *Lan eta lan* koadernoek beste era bateko ikasketa proposatzen zuten. Batetik, jolasaren bidez; bestalde, sariak ere egoten ziren.

Ariketak egin behar zituzten; gero, koadernoak Bilbora bidaltzen zituzten zuzentzeko, eta berriro bueltatzen zitzaizkien umeei. Koadernoak beteta, puntuak lortzen zituzten neska-mutiek, sariketetan parte hartzeko. Era askotako sariak zeuden: baloia, bizikleta, liburuak... Baina, zalantza barik, garrantzitsua txangoa zen; herri txikietan ez zegoen aukera handirik txangoan joateko.

**Herrietara arin zabaltzen hasi zen hori dena...**

Berez, Bilbon sortu zen *Kili-Kili*; baina arin zabaldu zen gero beste herrietara. Aldizkariak banatzeko, lagunen sare bat egin zuten. Hala, kili-jaiak egiten ziren gero; txokolatada egin, eta aldizkariak banatzen ziren bertan. Txanton eta Piper pailazoak ere sortu ziren mugimendu horren inguruan; euren ikuskizuna





## Kili-Kili

*Kili-Kili*, 1966an Bilbon, San Anton elizako katekesiko ekintzen artean sortutako egitasmoa da. Mutiko itxura zeukan; izan ere, umeei zuzenduta zegoen, euskara erabil zezaten. Berez, alfabetatzeko metodo bat zen, ume euskaldunek idazten eta irakurtzen ikasteko urruneko metodoa. Laster zabaldu zen herririk herri lurralde denetara, parroketako sarearen bitartez, batez ere. Mugimendu bat izan zela esan daiteke.

Jose Antonio Retolaza Iburguengoitia (Bilbo, 1929 - Muxika, 2014) zen *Kili-Kili*-ren sortzailea eta arima, Lander Gallastegi Miñaurrek (Torreon, Mexiko, 1929 - Berango, 2014) emandako itxura eta irudiakaz.

Orri solte batzuek hasi bazen ere, gero hainbat agerpen izan zituen: argitalpen txukunak, ibilaldiak, lehiaketak, ikastaroak, irratia, Kili-Kili egunak, kili-jaiak, eta abar.

egiten zuten. Horrela egon ziren hainbat urtez. Geroago, *Lan eta lan* koadernoak etxean hartzeko, jendeak harpidetu egin behar zuen; momentu batean, harpidetza hori zabaldu zen, ez bakarrik Bizkaiko herrietara, lehen esan dudan moduan; Gipuzkoara ere zabaldu zen, Nafarroara eta Ipar Euskal Herrira ere bai. Orduan ikusi zuten sortu behar zela hor inguruan zegoen jende dena batzeko egun bat; Kili-Kili Eguna Bilbon egin zen lehenengoz, 1977an. Egundorretan aurkeztu zuten komikiaren lehenengo zenbakia.

### Zelakoa zen komikia?

Gaur egun Japonian sortzen diren komikiak berehala dauzkagu hemen, euskaraz, gaztelaniaz...; aton egiten da horien banaketa. Garai hartan bazeuden oso ezagunak ziren komikiak, barbarako, *Asterix*, *Zipi Zape*, *Mortadelo y Filemon*, *La Pantera Rosa*; baina horiek denak gaztelaniaz zeuden edo frantsesez. *Kili-Kili*-ren berrikuntza izan zen komikiaren formatua euskarara ekarri izana.

### Lander Gallastegi berangoztarra zena ere ibili zen marrazkilaria *Kili-Kili* aldizkarian.

Jose Antonio Retolazak egin zuen lehenengo aldizkaria, eta berak sortu zituen *Lan eta lan* koadernoak; baina, horiek egiten hasi zirenerako, berak ezagutzen zuen Lander Gallastegi. Berangoztarra arkitektoa zen; Retolazak, Arrazolan abade zegoela, deitu zion hango elizaren konponketa egiteko. Bertan, elkar ezagutu zuten; eta proiektua bien artean

eta beste askoren laguntzagaz atera zuten aurrera. Landerrek egiten zituen *Lan eta lan* koadernoetako marrazki guztiak. Gainera, oso estetika berezia zeukan; bere marrazki bat ikusi, eta aton identifikatzen duzu.

### Azken zenbakia 2003an argitaratu zen.

*Kili-Kili* sortu zen momentuan, orduan hasi ziren lehenengo ikastolak; Resurreccion Maria de Azkue, Lauro izango zana, Begoñazpi... garai hartan hasi ziren lehenengo pausoak ematen. Urteak aurrera joan

“ Bazeukan alde berritzaile bat: jolasa zen garrantzitsuena. Orduko eskoletan, zigorra baino ez zuten ezagutzen umeek ”

ahala, Eusko Jaurlaritzaren eta Hezkuntza Saila sortu zirenean, euskararen hezkuntza eskoletara eta ikastolara bideratu zen.

### *Kili-Kili* bezalako aldizkari baten premia nabaritzen duzue?

Nik pentsatzen dut gaur egun, zentzu horretan, hori nahiko beteta dagoela; esan gura dut euskara ikas-

teko eskari hori umeen kasuan eskolak berak egiten duela neurri batean, baita gurasoen bidez ere. Leku batzuetan gertatu da lehen etxetik hartzen zen jakeria hori eta transmisio hori eten egin dela; gero, eskoletara eta ikastolara bideratu egin da. Nire ustez, gaur egun, udalek eurek edo kultur taldeek egiten dituzten ekintzetan, gura izanez gero, eskaintza itzela da.

### Gaur egun arrastorik utzi du *Kili-Kili*-k?

Lehenengo egunean eduki genuen hitzaldia *Kili-Kili* dela-eta; han esan zuen batek gaur egun ezagutzen ditugun udalekuak zein herrietan egiten diren egonaldiak eta bere garaian egiten ziren kili-jaiak gauza bera direla. Kontua zen umeak batzea; herri ezberdinetako neska-mutiek elkar ezagutzea; ikus-tea Lekeition era batera egiten zela euskaraz, baina Ondarroan beste era batera egiten zela, edo Urdulizen horrela... Bere momentuan egon zen hazi hori da zabaldu zena; eta gaur egun ezagutzen ditugun formatu horiek bere momentuan egindakoak ziren. Hor, funtsean dagoena horixe berori da: euskararen garrantzia umeei zabaldu, eta, batez ere, neska-mutiek alfabetatzea; eta ez hori bakarrik, haurrek ondo pasatzea. Oinarrian zegoena horixe zen: elkarregaz ondo pasatu, jaiak egin... hori dena euskaraz.

Hala ere, nik ikusten dut ume askok lotzen dutela euskara eskolagaz; orduan, ikastetxe edo ikastolatik ateratzen direnean ematen du erabili behar duten erregistroa ez dela euskara. ◀





## Sokatik tira eginez

Goiherri sokatira-taldeak Bizkaia Bizkaialde fundazioaren babesa dauka. © EUSKADIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

**Lur gaineko sokatira-txapelketen** denboraldia abiatu zen aurreko zapatuan, Berriatuan. Goiherrik hainbat talde zelairatuko ditu, eta eskualdean sei dema jokatu dira.

**E**uskadiko txapelketen aroa hasi zen pasa den aste-akabuan Lea Artibai eskualdean, 680 kiloko lehenengo saioagaz. Ohi legez, Gaztediko eta Goiherriko A taldeak izan ziren indartsuenak. Derbi bizkaitarrean, Laukizko zortzikotea nagusitu zen; erandioztarrek, ostera, bigarren eta hirugarren postuak bereganatu zituzten. Mutrikuko soka-

tira-taldea laugarren geratu zen, eta saillapena Gaztedi Bk, Ibarra eta Gaztedi Ck osatu zuten. 680ko txapela zein taldek jantziko duen jakiteko proba bi falta dira: zapatu honetan, Mutrikukoa, eta maiatzaren 22an, domeka, Debakoa. Bertan izango da finala. 680 kilokoan, Goiherrik talde bi inskribatu ditu. Horrez gainera, ez da makala izango 640, 600 eta 580 kilo-

ko modalitateetan dagoen lehia. Horiarian, A eta B zortzikoteakaz eta Ake-larregaz batera sortu duten taldeagaz parte hartuko du Goiherrik. Gaztediren hiru taldeak izango dituzte aurkari nagusiak; 580ko lehiari dagokionez, bakarra. 640koan Ibarra eta Mutriku ere lehiatuko dira, eta, 600ekoan, Mutriku bakarrik.

### Egitaraua

Ekainaren 4an hasiko da 640ko lehiaketa Laukizen. Hilaren 11n, zapatua, Erandioko Martiartuko dorretxearen azpian jokatuko dute bigarren saioa,

eta hurrengo zapatuan, ekainak 18, Barrikan izango da finala. 600 kiloko txapelketak ere Uribe Kostan saio bi izango ditu: hasierakoa, ekainaren 25ean Leioan jokatuko dena; eta finala, uztailaren 9an Erandioko San Kristobal auzoan egingo dena, bertan kategoriatik horretako txapela nork lortuko duen erabakiko da.

Amaitzeko, 580 kiloko txapelketa izango da uztailaren 16tik 30era. Lehenengo saioa Erandion jokatuko dute; bigarrena, Berangon, uztailaren 24an. Denboraldiko azkenengo txapela ebatziko duen finala Laukizen izango da. ◀

## Errotabarri 10 urtez erabiltzeko baimena

**P**lentziako Udalak jakinarazi duenez, joan den apirilaren 26an, jaso zuen hiribilduak Errotabarri futbol-zelaiaren gaineko ebazpena, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak bidalita. Agiri horretan Ministerioak Udalarari eman dio itsas lehorreko jabari publikoko 19.806 metro koadro okupatzeko kontzesioa, Errotabarriko kirol-instalazioak legeztatze eta oinezkoentzako pasealeku bat egiteko Butroi ibaiaren ezkerrean. Hala, ohartarazpen ofiziala jaso eta hurrengo egunean, apirilaren 27an, Ministerioak emandako 10 urteko emakidaren epea abiatu zen.

Hori dela eta, Plentziako Udalak, Plentziako Kirol Elkartek eta plentziarrek 2026ko apirilaren 27ra arte izango dute kirol-instalazioei behin betiko leku bat bilatzeko. Pasa den urtarrilaren 12an izan ziren udal arduradunak Madrilan, eta lagapena hitzartu zuten orduan, behin-behinean. Laster, gaiaren gaineko eztabaida publikoa zabalduko du Udalak, futbol-zelai berriak «inbertsio handiak» ekarriko dituelako, eta horrek «udalerriko eguneroan ondorio asko izan ditzakeelako, epe motzean». Bitartean, uda honetan oraingo zelaiak konponduko dute, Plentziako klubak bertan joka dezan. ◀



Errotabarri jokatzeko arriskutsua delako inguruko herriek hartu dituzte Plentziako taldeak.



# Getxon kirolzaleak milaka dira



Iaz, Getxo Kirolak udal erakundeak milioi bat euro baino gehiagoko laguntza eman zien herriko klubei.

**G**etxo Kirolak udal erakundeak 27.300 abonatuagaz amaitu zuen 2015eko ekitaldia. Kopuru hori 2014ko urtekoaren oso antzekoa da, 28 bazkide galdu baititu ordutik pasa den abenduaren 31ra arte. Era berean, Udalak zabaldu duenez, erakundeak «eutsi egin dio 2008tik izan den abonatuengoari, harrezkero 4.000 bazkide inguru gehiago baitaude».

Getxo Kirolak erakunde autonomoaren jardura-txosteneko datuen arabera, jende ugari parte hartu du kirol amateurren, eskola-kiroleko eta kirol federatuko jardueretan, eta haren instalazioak sarri erabili ditu. Neguko eta udako kanpainetan, 8.120

lagunek parte hartu zuten Fadura eta Gobela kiroldegietan emandako kirol-ikastaroetan. «Eta horiei fitnessko eta muskulazioko gimnasioetan izena emandako 1.900 lagun inguru gehitu behar zaizkie», udal arduradunek azpimarratu dutenez.

Eskola-kirolari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 2.100 ikasle inguruk parte hartu zuten Multikirolak eta igeriketa programetan. Gainera, kirol federatuan, Fadura, Gobela eta Andra Mari kirol-instalazioetan 2.677 lehiaketa egin ziren; lehiaketa horietan 49.000 kirolarik baino gehiagok parte hartu zuten, eta horiei begira 99.000 bat ikusle izan ziren, Getxoko Udalak emandako datuen arabera. ◀

## Erandioko Betiko Neskak, probak egiten

**F**utbolaren giroa barrutik ezagutu gura duten neskek horretarako aukera dute orain. Erandioko Betiko Neskak klubak futboleko jardun nahi duten neska denak gonbidatu ditu, maiatzeko eta ekaineko martitzenean edo eguenetan Astrabuduko

San Lorentzo futbol-zelaira joan eta probak egin ditzaten, 17:00etatik aurrera. Argibide gehiago gura duenak taldeak horretarako darabiltzan telefonoetara deitu edo WhatsApp-mezuraren bat bidal dezake. ◀

info+: 618 083 423 / 676 905 334



Erandioko Betiko Neskak klubeko talde nagusiak Euskal Liga jokatzeko du. © LEIOA K. E.



Umeentzako puzgarriak, kick boxing erakustaldia eta hainbat jardura gehiago izango dira.

## Elkartasun-martxa egingo dute Erandion

**O**rtzi herri-kirol taldeak antolatuta, domekan, maiatzak 8, Erandioko Elkartasun Martxaren 11. edizioa egingo dute, Astrabuduko Atxazpe mendi-taldearen laguntzagaz. Lehenengo ediziotik ohitura dutenez, parte-hartzea doakoa da aurton ere. Halere, antolatzaileek eskakizun bat egin diete parte-hartzaileei: alperrik galdu ezin den jaki kilo bat eroan dezaten, elikagai-bankuei emateko. Dena den, argi utzi dute ez dela derrigorrezkoa izango, eta jantzia eman ezin duenak berdin-berdin egin ahal izango duela ibilbidea. Iazko ildoari jarraituta, ibilbide bi izan-

go dira: laburrak 12 kilometro izango ditu; luzeak, ordea, 26. Biak Erandioko plazatik irtengo dira, eta leku berean izango dute helmuga. Txango laburrean, kirolzaleak Akarlanda eta Unbetik pasatuko dira; luzean, Banderas mendia, Lutxana, Altxaga, Astrabudua, Leioako campusa, Martiartu eta Unbe bisitatuko dituzte, Erandioko itzuli aurretik. Izen-ematea egin daiteke aurretik, posta elektronikoz, edo egun berean 07:15etik aurrera txango luzean, eta 09:00etatik aurrera laburrean. ◀

izen ematea: atxazpe@gmail.com  
info+: 696 781 221 / ortzihtk@gmail.com

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz  
[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)





# Triatloia, laster Gorlizko badian

**G**orlizko Badiaren X. Triatloia jokatu da datorren maiatzaren 15ean, domeka, IA Sport triatloi-klubak antolatuta, Gorlizko Udala eta Euskadiko Triatloi Federazioaren laguntzagaz.

Daborduko, izen-ematea zabalik dago, eta inskripzioa maiatzaren 9ra arte egin ahal izango da. Federatuek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek bost euro gehiago. Hala ere, ChampionChip modeloko txipa dutenek aukera izango dute inskripzioa euro bi gutxiago ordaintzeko. 600 atleta baino gehiago batzea aurreikusten dute antolatzaileek; haietatik 80 gutxienez, emakumezkoak.

Triatloia esprint-distantzian jokatuko da; Gorlizko hondartzatik abiatuta, kirolariek 750 metro igerian egingo dute hiruki formako zirkuituari jarraituz, eta hondartzara itzuli. Ondoren, bizikleta hartu, eta 20 kilometroko ibilbidea osatuko dute atletek. Atal horre-

tan, hainbat aldaketa egin dituzte aurreko urteakaz alderatuta, errepide eta kale gutxiago moztu behar izateko. Hala, bira bi emango dizkiote zirkuituari. Besteak beste, birritan igoko dira Andrakako eta Orabileko gainetara, eta Armintzatik igaroz, Gorlizera helduko dira. Azkenik, parte-hartzaileek korrika egin beharko dute 5.000 metroko distantzian, hondartzako pasealekuan ipiniko duten zirkuituari buelta pare bat emanaz. Ibilbide arina izango da.

Aurtengo Euskal Herriko triatloi zirkuiturako laugarren proba puntuagarria izango da Gorlizko proba. Gainera, Du Tri IA Sport Koparako hirugarren proba puntuagarria ere izango da. Antolakuntzak zabaldu duenez, emakumezkoen lasterketa, goizeko 10:00etan hasiko da, eta gizonezkoena, berriz, goizeko 10:10ean. Boxak irteeraren ondoan egongo dira, Gorlizko hondartzako aparkalekuan. ◀

izen-ematea: [Triatloi.org](http://Triatloi.org)



Gorlizko hondartza izango da probaren protagonista. © TRIATLOI ETA DUATLOIAK



Natxo Gonzalezek eskubidea izango du Galean parte-hartzeko, QS mailan.

## Galeko olatua bigarren mailara jaitsi dute

**D**atorren urriaren 15ean abiatuko da Galeako Olatu Handirako itzarote-epea, otsailaren 28a bitartean. Hamargarren edizioa izango da, iaz proba hori ez baitzen egin. Seguru aski horregatik, WSL Munduko Surf Ligak iragarri du Galea ez dela izango aurtengo BWT Olatu Handien Tourreko zazpigarren edizioaren geltokietako bat. Horren ordez, bigarren mailako olatu handien QS Sailkapen Serieak liga berriko proba izango da Getxokoa, pasa den neguan bertan behera geratu zen Oregongo probagaz batera. Portugalgo Nazare herriko olatuak beteko du Galeakoaren lekua.

Gary Linden BWT itzuliko zuzendariaren berbetan: aurtengoa «inoiz baino zirrargarriagoa izango delakoan nago. Horretan, noski, Portugalgo urautsia atxiki izanak lagunduko du». Lindenek azaldu duenez, «urte luzez pentsatu izan dugu Nazareko olatua arraunean hartzeko ezinezkoa zela, baina hesi horiek hautsi dira, eta egiazko proba egiteko ordua heldu da, olatu handietako txapelketa bat!». Bitartean, Galeako lurmuturra ez da WSLtik erori den uribekostar bakarra. Iaz olatu handien munduko itzulian lehiatu zen Natxo Gonzalez plentziarrak ez dauka aurtun parte-hartzea ziurtaturik. ◀

## Sahararen aldeko X. herri-krosa bertan behera utzi behar izan dute

**A**ljeriako Tinduf herrian dauden Saharako errefuxiatuen kanpamentuen aldeko X. Herri Krosa bertan behera geratu da. Datorren domekan egitekoa zen, Algortan, Atfal Getxoko Sahararen aldeko elkarteak eta Getxo Atletismo Klubak antolatuta, eta beste erakunde batzuek lagunduta; tartean, Getxoko Udala. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lasterketa ezin izango da egin, «antolakuntzatik kanpoko arra-

zoiengatik». Era berean, eragindako eragozpenak barkatzeko eskatu dute. Urtero legez, irteera eta helmuga Eragako hondartzan ipintzekoa zen. Bertan hiru proba egin behar zituzten: 10 urte artekoek abiatu behar zuten herri-krosa, eta 600 metroko ibilbidea osatu; 11 eta 14 urte bitartekoek 1.500 metro izango zituzten aurretik; azkenik, 15 urtetik gorakoek 8 kilometroko ibilbidea zuten betetzeko. ◀

*Iñaki Bitxitegia*

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3      Telletxe 1  
94 430 23 45      94 460 27 41

**Algorta**

**aldai**

Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31



## Horoskopoa



### Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ezusteke gertaeraren batek lur jota utziko zaitu; halere, ez duzu horren eragina luzaroan pairatuko. Bestalde, diru-iturri berri bat duzu aukeran.



### Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Gorputz hori zaindu beharra duzu. Fruta-denda-koak dioenez, egunero jan itzazu bost barazki eta fruitu, gutxienez.



### Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Adinaren gainean hausnarketa sakonak egiten zabilta azken egunotan. Ez galdu denbora horrelako kontuetan, eta baliatu zure astia.



### Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Osasun aldetik makal bazabiltza, agian entrenamendu gehiago behar duzu. Gorputza ez da bakarrik jateko eta lo egiteko.



### Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Opariak legez, harreman gehienak ere lokarriak dira. Babes itzazu zure nortasun eta izaera, betiko aldatu ez baduzu gura.



### Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ezer ez egitea baino okerrago, kontu bakarra dago: larregizko beharra egitea. Lana pilatu arren, patxadaz hartu.



### Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zure eta bikotekidearen arteko tentsio-giroa labanaz ebaki daiteke. Berbaz gauza asko konpontzen dira, biek ekarpenen bat eginez gero.



### Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Orain duzu unea proiektu berri bati ekiteko. Aha-legen eta interes dena norabide horretara bideratuz gero, helburua lortuko duzu.



### Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Badator zoriontasun-bolada txiki bat. Desiratzen zabilta hori beteko da. Baliatu unea, ez baita luzea izango.



### Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Erabakiak hartzean ez izan beldurrik. Baina aztertu zure egoera, kale eginez gero, inguruko baten bat poztuko da-eta.



### Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Ez dakizu zergatik den, baina apal eta larri sentituko zara. Gogoan izan mundua hor kanpoan dagoela, egoera, pertsona eta leku berriz beteta.



### Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Diruagaz arazorik izango ez baduzu ere, ipini arreta has ditzakezun negoziotan. Beti dago norbait hartzeko pronto eta emateko tonto.

## Zorion agurrak

**Bidali zeurea!**  
publi@hiruka.eus  
94 491 13 37



5€



**KATALIN**  
ERANDIO GOIKOA  
*Aita, Iker, aitite eta Lola*

Katalintxu, lora ederra! zer prestatuko diguzu egun berezia ospatzeko? Guk musuz beteko zaitugu, belarrira «Zorionak» abesten dizugun bitartean!!



**AIARA**  
ALGORTA  
*Etxekoen partez*

Askotan, oparirik onenak ez datoz koloredun paperean bilduta. Berba gutxi hauen bitartez maite zaitugula esan gura dizugu. Zorionak!!!

## Repsol Neotech erregai berriak

Baliatu gure **Teknologia Zentroko** azken aurrerapenak. Orain, **gure erregai guztiek** Neotech dute, eta horren formula esklusiboak honako abantaila hauek emango dizkizu gehiago ordaindu gabe:

- **PRESTAZIO HANDIENAK KONTSUMO TXIKIENAREKIN**
- **MOTORRAREN BABES HANDIAGOA**
- **MATXURA GUTXIAGO**



**REPSOL**

*Inventemos el futuro*



Neotech

**REPSOL, CAMPSA ETA PETRONOR HORNITEGIETAN SOILIK**

Informazio gehiago [repsol.com](http://repsol.com) webgunean





# Geolodia 2016

## Galeatik Sopelara, Urrezkoaren bila

**Bizkaiko Geolodia 2016** ibilaldia Uribe Kostan egingo dute hilaren 8an, Getxo eta Sopela artean, hain zuzen ere. EHUko ikertzaile-talde batek gidatuko du, eta euren berbetan, gure eskualdeko inguru horrek aukera asko eskaintzen ditu Lurraren historia zuzenean ezagutzeko.



IKER RINCON MORENO

**S**arritan kanpora begira egoten gara, sorterritik milaka kilometrora dauden leku eder eta ikusgarriak bisitatzeko guran. Askotan gertatzen da hori, eta, gehienetan, ez diogu erreparatzen gure eguneroko bizilekua inguratzen duten parajeei. Uribe Kostan badaude ikusgarriak diren hainbat gune, berbarako Gorrondatxe hondartza, Barrikako labarrak eta Astondoko duna-fosilak; horiek, gainera, milioika urteko historia kontatzen dute. Hori dela-eta, gure eskualdea aukeratu dute Bizkaiko Geolodia 2016 egitasmoa antolatzeko. Geologoen gidatutako doako ibilaldi-sorta bat da Geolodia, eta 2010etik hamaika lekutan eskaintzen dituzte. Hala, Bizkaian Uribe Kostan egingo dute, hilaren 8an, Galeatik Sopelara bidea, hain zuzen ere. Sopelako eta Getxoko udalek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Ikerketa geologikoetarako eta zabalkunde zientifikoa laguntzeko zerbitzuak (SciGea) antolatu dute kostaldeko ibilbide hori. Espainian, berriz, Espainiako Elkarte Geologikoak (SGE), Espainiako Meatzaritza eta Geologia-ko Institutuak (IGME) eta Espainiako Lur Zientzien Irakaskuntzarako Elkarteak (AEPECT) koordinatzen dute egitasmoa, eta Espainiako Zientzia eta Teknologia Fundazioak (FECYT) finantzatzen du.

Blanca Martínez, Irantzu Guede, Amaia Ordiales eta Jone Mendicoak osatzen duten EHUko geologotaleak gidatuko du Uribe Kostako txangoa. Euren arabera, Geolodiaren helburu nagusia da parte-hartzaileek ingurunea «begi geologikoekin» begiratzea; horrez gainera, geologoen lana eta zereginak ezagutzuz, prozesu geologikoen funtzionamendua ulertzea, ondare geologikoen jabetzea, eta horiek babesteko beharra sustatu gura dituzte. Hala, ibilaldira hurbiltzen direnek ezagutu ahal izango dituzte orain dela 72 milioi urte gure kostaldea zelakoa zen, edo Piri-

nioen sorrerak Bizkaian izan zuen eragina; eta ingurune geologikoakaz pertsonen izan zuen harremana zer-zelakoa zen ulertu ahal izango dute. Era berean, geologo-taldeak iragarri duenez, orain dela 66 milioi urte Lurreko bizitzaren zati handi bat suntsitu zuen meteoritoari erreparatu, eta horrek eragindako ondorio klimatiko berri ere emango dute, besteak beste.

### Uribe Kosta, interes geologikoko gunea

Ikertzaileen berbetan, Uribe Kostan ez dago geologikoki interes txikiko gunerik. Diotenez, arroka guztiek kontatzen dute bere historia, zelan sortu ziren eta zelan heldu diren gaur egun dauden lekura. Hala ere,

**Uribe Kostan ez dago geologikoki interes txikiko gunerik, «arroka guztiek kontatzen dute bere historia»**

gurean badaude «ikusgarriagoak» izan daitezkeen eremuak. Eskualdean GIL (Geologia Interesdun Lekuak) sailkapena duten 14 gune daude, horien artean, hauek: Armintzako flysch-beltza, Barrikako hareak, Meñakozeko kuxin-laba, Astondoko duna fosilak, Gorrondatxe eta Tunelbocako hondartza zementatua, Sopelako K/T muga eta Barrikako labarrak (Barrika-Galea paleozabalgunea). «Azken horiek egundokoak dira, eta inguratzen gaituen ondare geologiko aberatsaren parte bat besterik ez dira», azaldu dute. Geolodia 2016 ibilbidea, berriz, oso interesgarria da, eta horretarako, hainbat arrazoi daude. Izan ere, esan legez, eskualdeak zenbait aukera ematen

du hainbat alderdi geologiko behatzeko, «ez bakarrik arroka-motak, baizik eta estratuek azaltzen dituzten egiturak eta kostaldeko dinamika ere bai, adibidez. Horiek denak garrantzitsuak dira, geologiaz ari garenean». Horrez gainera, orain dela 210 milioi urteko arrokak eta XX. mendeko bitxikeriak erakutsiko dituzte Geolodia 2016rako aukeratutako ibilbidean, eta eskala geologikoren bi garairen arteko muga ezagutaraziko dute Gorrondatxe hondartzako arroketan.

Mundu osoko erreferentzia da hori, eta hala erakusten du bertan ezarri den Urrezko Iltzeak; «duela 47,8 milioi urteko gertakaria ikertzen duten guztiek erreferentziatzen dute toki hori», azaldu dute ikertzaileek. Gorrondatxek Urrezko Iltzea jaso du bi garai geologikoren arteko muga markatzen duelako: Ypresiar-Lutetiar muga. Halaber, izendapen hori jasotzeko hiru arrazoi nagusi nabarmendu dituzte geologoen: iristeko erraza izatea, erregistro geologiko jarraitua izatea, eta izaki ezberdinen fosil ugari izatea. «Horregatik guztiatik, garai horri buruzko ikerketak garatzeko mundu osoko ikertzaileak hondartza horretako arrokak hartzen dituzte erreferentziatzen».

Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile-taldeak zehaztu duenez, orain dela 210 milioi urteko material geologikoetatik gaur eguneko sedimentuetara aurki daitezke Uribe Kosta osoan. Horregaz denagaz, azken 200 milioi urtean jazotako klima-, itsas dinamika- eta biodibertsitate-aldaketak zelakoak izan diren jakin daiteke, «Euskal Herriko historia geologikoren zati handi bat berreraikiz». Ostera, gurean hainbat garai ezin direla aurkitu ohartarazi dute ikertzaileek, ez dagoelako jarraitasun osoa, «zenbait milioi urte falta zaizkigu, eta horrek ere informazioa ematen digu Pirinioak sortu zirenean Uribe Kostan gertatu zenari buruz». Hain zuzen ere, Europako eta Ibe-





Ezkerrean:  
Barrikako labarren panoramika.  
Eskuman:  
Gorrondatxeko arroketan dagoen Urrezko Iltzea.  
Eskuman 2:  
Meñakozeko kuxin-laba.  
Behean 1:  
Astonoko duna fosilak.  
Behean 2:  
Geolodia 2016 gidatuko duten geologoak, ezkerretik eskumara:  
Irantzu Guede, Jone Mendicoa, Blanca Martinez eta Amaia Orbiales.



riako plakek talka egin zutenean, orain dela 79 milioi urte, Pirinioak sortzen hasi ziren; Orogenia alpetarra deritzon prozesuari esker. Geologoek berbetan, Bizkaian, Orogenia alpetarraren (duela 37-15 milioi urte artean) konpresio-fasearen amaieran, Maastrichtiar eta Eozenoaren itsas hondoa sortutako arroketan altxamenduak eta okerdurak gertatu ziren. «Prozesu horri esker, arroketan hausturak (diaklasa eta failak) eta tolesak (antiklinalak eta sinklinalak) sortu ziren, eta material geologikoen jarraitasuna eten zuten». Egitura horiek guztiak Galea eta Sopela arteko ibilbidean zehar aurki daitezke.

Adituek zehaztu dutenez, eskualdean hainbat denbora-muga geologiko antzeman daitezke; halarere, bi dira aipagarrienak: Kretazeo-Paleogeno muga (orain dela 65 milioi urte), dinosauroak desagertu zirenean; eta Ypresiar-Lutetiar muga (duela 47,8 milioi urte), Urrezko Iltzeagaz markatuta dagoena Gorrondatxeko arroketan. Denbora geologikoen eskala, erregela baten antzera, denbora-maila ezberdinetan banatuta eta azpibanatuta dago. Hala, baldintza klimatiko zein ozeanografiko eta organismo ezberdinek ezaugarritzen dute denbora tarte bakoitza.

Bizkaian aurki daitezkeen arroka gehienak itsasoan sortu zirela argitu dute geologoek. Beraz, horietan gordetako fosil gehienak itsastarrak dira. «Egun itsasoan bizi diren organismoak bezalako belaki eta itsas trikuen fosilak igar daitezke, baina baita gaur egun existitzen ez diren *ammonite* (oskol kiribilduko zefalopodoa) eta *inozeramido* (tamaina handia izan zezaketen kisku biko moluskuak) bezalako anima-

liak ere. Horiez gainera, organismoek utzitako aztarnak ere aurki daitezke, *zoophycys*-ak esate baterako».

### Zergatik jakin behar genuke geologia?

«Gure planetaren sorreratik gaur egunera arte ikeritzen duen zientzia bakarra da geologia»; beraz, oinarritzkoa da hasieratik gure historia ulertzeko. EHUko ikertzaileen arabera, lehenengo bizi-agerpenetik pertsonon agerpenera arte existitu diren espezieen eboluzioa ezagut dezakegu, «aldaketa klimatikoek nola baldintzatu duten gure portaera azken milaka urtean, edo nola gizakiak bere ingurunea moldatu duen errekurtsioak aprobetxatzeko». Laburbilduz, geologiak aukera eskaintzen du gizon-emakuneen eta Lurraren historiari «ikuspuntu osoa eta globala» izateko.


### Geolodia 2016, Galeatik Sopelara

Geolodia ekimena guztiz doakoa da; ez du parte-hartzaile mugarik, eta edonorentzat moduko kanpo-jarduerara bat da. Izen-emateari dagokionez, interesa dutenek [servicios.scigea@gmail.com](mailto:servicios.scigea@gmail.com) helbide elektronikora mezu bat bidali beharko dute. Izena eman barik, ezin izango dute-eta ziurtatu arreta egokia. Ibilaldia goizeko 10:00etan hasiko da, Galeako gotorlekuko aparkalekutik, eta Sopelan amaitu; Gorrondatxe hondartzean egingo dute geldialdi bat, Urrezko Iltzean dagoen lekuan. Zailtasun txikiko eta edozein adin eta egoera fisikoko pertsonentzat bada ere, arropa eta oinetako eroak, eguzkitako krema, janaria eta ura eroatea gomendatu dute antolatzaileek. ◀

izen-ematea: [servicios.scigea@gmail.com](mailto:servicios.scigea@gmail.com)



©SCIGEA







## Mundukatuak

Gizane Tellez Echeandia aretarra

# «Lukiak topa daitezke lorategian edo kalean»

Ingelesa ikasten zebilela, ez zuela aurrera egiten konturatu zen Gizane Tellez Echeandia aretarra. Horrenbestez, denboralditxo batez Ingalaterran bizitzea erabaki zuen; 1997an izan zen hori, eta oraindino bertan segitzen du. Lur hartzeko, lagun baten etxera joan zen, St. Albans hirian, Londresetik iparraldera. Hilabete bertan eman ostean, *au pair* lanak egiten hasi zen. Urtebete egin aurretik, «nire seme-alaben aita ezagutu nuen, eta mai-tasunagatik geratu nintzen».

Hala ere, horren aurretik, gogoan du: «moldatzea izugarri kostatu zitzaidan; latza izan zen, baina orain poz-pozik nago, eta senide eta lagunak faltan sumatu arren, lantzean behin ihes egiten ahalegintzen naiz... ez dago hain urrun!». Eguraldiak ere ez du laguntzen: «hemen, neguko hilabeteak gogorragoak dira, 16:00etan iluntzen baita». Era berean, aretarrari kostatu

egin zitzaion hasieran bere gustuko jakiak topatzea: «lehen, supermerkatuetan, ez zeuden era askotako elikagaiak, baina gaur egun denetarik daukate: urdaiazpikoa, txorizoa, eta abar». Jakina, domeketan bertan ohitura den okel errerako osagai denak topa dai-

**“Getxokoak alderatuta hemengo prezioak ez dira garestiak”**

tezke: patatak, brokolia, azenarioak eta *gravy*-saltsa. Prezioak, «Getxoko supermerkatuak alderatuta, ez dira garestiak; merkeagoak direla esango nuke», dio Tellezek; «eta jatetxe batera joatekotan, eskaintza zabalagoa da, eta merkeagoa». Irudi tipikoak agindu legez, bertan garagardoa eta gin-toni-

ca dira edaririk zabalduenak, baina ardo eta sagardoa euren lekua hartzen dabilta. Ostera, Surbinton bizitegi-herria da, Areta edo Algorta modukoa. Bertako auzokide askok eta askok Londreseko erdigunean lan egiten dute, baina bertara aldatu ziren asko, familia osatzeko hautua egin zutenean, ikastetxe, parke eta umeentzako jarduera onak daudelako. Gainera, ez du naturarekiko harremana galdu: «lorategian edo kale erdian lukiak topa ditzakezu». «Gune hau zoragarria da!» nabarmendu du Tellezek: «oreinez beteta dagoen Richmond Park parke zabala eta ederra daukat hamar minutura. Ondo dago paseoak emateko, *picnic*-ak egiteko eta bizikletaz joateko». Wimbledon ere gertu dauka. Legebiltzarra eta tenis-pistez gainera, bertan dago bere seme-alaba biren ikastetxea. Espainiako Gobernuak lagunduta, gaztelania ikasten dute. ◀

## NOR DA

**Nongoa**  
Areetakoa.

**Adina**  
43 urte.

**Zertan dabil**  
Ikastetxe batean jolas-koordinatzailea da. Horrez gainera, gaztelaniazko eskola partikularrak ematen ditu.

**Ikasketak**  
Administrazio-laguntzailearen titulazioa dauka, baita Administrazio-kudeaketarena ere. Ingelesa, Advance mailaraino egin du.

**Noiz arte Ingalaterran?**  
Ez daki noiz arte geratuko den.

## NON DAGO



## Lurraldea

Surbiton udalerrria Kingston upon Thames errege-barrutian dago. Londres eta beste 31 barrutiaz batera Londres Handia eskualdea osatzen du.

## Azalera

37,25 km2 (Erandio, Leioa eta Getxo batera baino apur bat txikiagoa).

## Barrutia

Kingston upon Thames

## Biztanleria

170.000 (Urribi Kostak legez).

## Hizkuntzak

Ingelesa da hizkuntza ofiziala eta hegemonikoa. Halere, Kingston upon Thames barrutian %37 bat gutxiengo etnikoak dira: indiarak, pakistandarrek, arabiarak, txinatarrak, irlandarrak eta abar luze bat.

## Dirua

Libera esterlina.

## Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua